Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urteko kontuak 2024

2025eko Azaroa

CÁMARA DE COMPTOS DE NAVARRA
NAFARROAKO KONTUEN GANBERA

LABURPENA/NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN URTEKO KONTUAK, 2024

- **Aldeko iritzia,** bai auditoretza finantzarioari bai legezkotasunaren betetzeari dagokienez.
- NUPek **134 milioi gastatu** zituen eta **139 milioiko diru-sarrerak** izan zituen. **26 milioi inbertsioetara** bideratu zituen, besteak beste Osasun Zientzien Fakultatearen eraikinaren eraikuntzara.
- Ekitaldiaren amaieran, **13 milioiko aurrezki garbia** lortu zuen, gastu orokorretarako **diruzaintza-gerakina10 milioikoa** zen, eta **ia ez zeukan zorrik.**



GOMENDIOAK

- 2010eko kontabilitate-plan orokorra aplikatzea.
- Kontabilitate analitikoaren ezarpena amaitzea.

AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA 4
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA 5
III. IRITZIA 7
III.1 2024ko urteko kontuei buruzko finantza-auditoretzako iritzia 7
III.2 Legeria betetzeari buruzko fiskalizazioko iritzia 7
IV. IRITZIAREN OINARRIA 8
V. INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN GOBERNANTZARI BURUZKO IRITZIA 9
VI. FUNTSEZKO AUDITORETZA-GAIAK 10
VII. AZPIMARRA-PARAGRAFOA 11
VIII. BESTE AUZI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA 12
IX. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN ERANTZUKIZUNA 14
X. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA 15
XI. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA 17
1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN 2024KO EKITALDIKO URTEKO KONTUEN LABURPENA 18
2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA 22
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA 26
4. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOKO OHARRAK ETA AURKITUTAKO BESTE GORABEHERA BATZUK 28
Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2024ko aurrekontua 28
4.2. NUPen egoera ekonomiko-finantzarioa 2024ko abenduaren 31n 30
4.3 Langileria-gastuak 31
4.4. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 38
4.5 Transferentzia arruntak 40
4.6. Inbertsioak 41
4.7 Ikerketa-kontratuen eta -proiektuen kudeaketa 43
4.8 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk 44
4.9 Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak 48
4.10. Epe laburreko zordunak eta hartzekodunak 49
4.11 Unibertsitate-Gizarte Fundazioa 50
5. GEHIGARRIA. OSASUN ZIENTZIEN FAKULTATEA HARTUKO DUEN ERAIKINAREN ERAIKUNTZA 53
6. GEHIGARRIA. INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN GOBERNANTZARI BURUZKO IRITZIA 57
I. ERANSKINA. ADIERAZLE EZ-FINANTZARIOEN BILAKAERA 59
II. ERANSKINA. ABENDUAREN 31KO LANGILE EFEKTIBOEN BILAKAERA 60
III. ERANSKINA. UNIBERTSITATEA-GIZARTEA FUNDAZIOAREN JARDUEREI BURUZKO ADIERAZLEAK 61
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN URTEKO KONTUAK, 2024 62

I. Sarrera

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2025erako bere jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP, aurrerantzean) 2024ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu. Horrekin batera, fiskalizatu du ea haren jarduerak legeria betetzen duen. Horretaz gain, informazioaren teknologien gobernantzari buruzko auditoretza egin dugu.

Landa-lana 2025eko apiriletik urrira bitartean egin zuen lantalde batek, zeina auditoretzako hiru teknikarik, sistema informatikoetako goi mailako teknikari batek, sistema informatikoetako erdi mailako teknikari batek eta auditore batek osatu baitzuten. Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko eta administratiboek laguntza eman zuten.

Jarduketa honen emaitzak arduradunei azaldu zitzaizkien, kasua bazen egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkez zitzaten, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Ezarritako epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak ematen dizkiegu NUPeko eta Unibertsitatea-Gizartea Fundazioko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Txostenaren diru-zenbatekoei dagokienez, biribildu egin dira, zentimorik ager ez dadin. Datuek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez datu biribilduen batura. Ehunekoak ere balio zehatzen gainean kalkulatuta daude, eta ez balio biribilduen gainean.

II. Helburua eta norainokoa

Gure lanaren helburua izan da gai hauei buruz gure iritzia ematea:

• Ea NUPen 2024ko ekitaldiko urteko kontuek beren alderdi esanguratsu guztietan irudi fidela ematen duten 2024ko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den arau-esparruari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei jarraikiz.

• Ea NUPek eta haren mendeko entitateak 2024ko ekitaldian egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta kontu orokorretan jasotako informazioa egokitu egiten ote zaizkien, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketan aplikatu beharreko arauei.

Aurreko helburuez gain, informazioaren teknologien (aurrerantzean, IT) gobernantzari buruzko auditoretza egin dugu lehenbiziko aldiz.

Administrazio elektroniko aurreratuaren ezarpen erabatekoaren ondorioz, entitate publikoek ITekiko erabateko mendekotasuna dute. Hori dela-eta, teknologia horien gobernantza egokia ezinbestekoa da.

ITen gobernantza korporatiboa da teknologia horien gaur gungo nahiz etorkizuneko erabileraren zuzendaritza eta kontrolerako sistema. Barne hartzen du antolakundeari euskarria emateko ITen erabilera zuzendu eta ebaluatzea, bai eta erabilera horren monitorizazioa ere, planen gauzatzea lortze aldera. Barne hartzen ditu, halaber, erakundean ITak erabiltzeko estrategiak eta politika. Gobernantzak bermatzen du alternatibak ebaluatzea, exekuzioa zuzendaritza-lan egokiz egitea eta arriskua eta errendimendua gainbegiratzea.

Alderdi horiekin lotuta, gure xedea izan da honako hauei buruzko iritzia ematea:

• ITen gobernantza ea entitatearen izaerarekin eta konplexutasunarekin bat ote datorren.

• ITekin lotutako zuzendaritzaren erakunde-egitura eta esleitutako baliabideak egokiak ote diren.

Gure lanaren norainokoak barne hartzen ditu 2024ko ekitaldiko kontu orokorrak eta 4. gehigarrian adierazitako laginekin zerikusia duten eragiketak. Halaber, ITen gobernantza ebaluatzeko, gobernantza korporatibo, ITen gobernantza eta haien auditoretzari buruzko 5331 kanpo-kontroleko organoen fiskalizazio gidaliburu praktikoan (GPF-OCEX 5331) jasotako galdetegi bat baliatu da, Nafarroako Unibertsitate Publikoari egokitua.

Lanaren denbora-norainokoa 2024ko ekitaldia izan da; baina, kasuan-kasuan, beste ekitaldi batzuei buruz beharrezkoak izan diren egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Gure azterketaren norainokoa zehazteko, halaber, honako hauek hartu ditugu kontuan:

• NUPeko Barne Kontroleko Zerbitzuaren txostenak, antolakunde horren gastu- eta diru-sarrera-arlo desberdinei buruz eginikoak.

• Unibertsitatea-Gizartea Fundazioaren 2024ko urteko kontuei buruz enpresa pribatu batek eginiko auditoretza-txostena.

III. Iritzia

Nafarroako Kontuen Ganberak, bera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, NUPen urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: 2024ko abenduaren 31ko balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontua, 2024ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazkia.

Halaber, 2024ko ekitaldiari buruzko legeria-betetzearen fiskalizazioa egin du NUPen eta horren fundazio publikoaren gainean.

III.1 2024ko urteko kontuei buruzko finantza-auditoretzako iritzia

Gure iritziz, urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute, NUPen ondarearena, 2024ko abenduaren 31ko finantza-egoerarena eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoena, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruaren arabera (zeina oroitidazkiko "antolaketa" apartatuan identifikatuta baitago) eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideen arabera.

III.2 Legeria betetzeari buruzko fiskalizazioko iritzia

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, NUPen eta haren fundazio publikoaren 2024ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotzen diren jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi muntadun guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

IV. Iritziaren oinarria

Fiskalizazioa egin dugu kanpo-kontroleko erakunde publikoen funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraituz eta, zehazki, ISSAI-ES 200 eta 400 arauetan ezarritakoari jarraituz, zeinak finantza-arloko eta legeriaren betetzeari buruzko fiskalizazioen gainekoak baitira. Halaber, kanpo-kontroleko organoen fiskalizazio-gida praktikoak bete ditugu. Aurrerago deskribatzen dira arau horien indarrez ditugun erantzukizunak, gure txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean, urteko kontuez eta legeria betetzeari buruzko fiskalizazioaz denaz bezainbatean.

Fiskalizatutako entitatearekiko independenteak gara, kontu orokorrei buruzko gure fiskalizazioan aplikatu behar diren etika-alorreko eta independentziaren defentsaren alorreko baldintzek ezartzen duten bezala, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak eskatzen duenez gero.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen dio finantzei eta legeriaren araberakotasunari buruzko gure iritziari.

V. Informazioaren teknologien gobernantzari buruzko iritzia

5331 kanpo-kontroleko organoen fiskalizazio gidaliburu praktikoari jarraikiz, hamar arrisku eta NUPek horien gainean eginiko kontrola aztertu ditugu, txosten honekin batera doan 6. eranskinean jasotako xehetasunekin.

NUPek arrisku horien gainean gauzatzen dituen kontrolak eraginkorrak direla ondorioztatu dugu; hala ere, horietako hiruren gaineko gomendioak egin ditugu.

Hori aintzat hartuta, ondorioztatzen dugu ITen gobernantza badela entitatearen izaeraren eta konplexutasunaren araberakoa, eta ITekin lotutako zuzendaritzaren antolatze-egitura eta baliabide esleituak egokiak direla.

VI. Funtsezko auditoretza-gaiak

Funtsezko auditoretza-gaiak dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan duten horiek, jadaneko epealdiko urteko kontuei buruz egin dugun fiskalizazioan. Gai horiek jorratuak izan dira urteko kontuen multzo osoari buruz egin dugun auditoretzan eta kontu horiei buruzko gure iritzia zehaztean, eta horiei buruz ez dugu gure iritzia bereiz adierazten.

Erabaki dugu gure fiskalizazioan ez dagoela jakinarazi beharreko gai giltzarririk.

VII. Azpimarra-paragrafoa

Ohartarazten dugu, halaber, bilakaera positiboa izan dutela NUPen kontuen oroitidazkian dagoen adierazle ekonomiko eta aurrekontukoei buruzko epigrafean agertzen diren egoera ekonomiko-finantzarioaren adierazleek. Jarraian erakusten dugu azken lau urtean horietako batzuek izandako bilakaera (milaka eurotan)[1]:

	2021	2022	2023	2024	Aldea (%) 2024/2021	Aldea (%) 2024/2023
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	7.457	10.643	4.029	5.316	-29	32
Aurrezki gordina	10.400	11.250	12.555	12.927	24	3
Aurrezki garbia	10.378	11.229	12.524	12.888	24	3
Aurrekontu-emaitza doitua	2.434	2.121	3.985	2.524	4	-37
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	5.574	3.136	7.887	10.257	84	30

2024an adierazle horiek bilakaera positiboa izan dute 2023arekin alderatuz gero, aurrekontu-emaitza doituak izan ezik; izan ere, ehuneko 37 egin du behera, nagusiki ikerketa-jardueratik eratorritako urteko finantzaketa-desbideratzeen eraginez. 2021arekin alderatuta, adierazleek bilakaera positiboa dute, aurrekontu-saldo ez-finantzarioak izan ezik; izan ere, ehuneko 29 egin du behera, Osasun Zientzien eraikinaren eraikuntzak eragindako gastuagatik.

[1] 2021 eta 2023ko ekitaldi ez-auditatuak.

VIII. Beste auzi batzuei buruzko paragrafoa

• 2023ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko auditoretzarik ez da egin, ez eta, hortaz, 2024ko urteko kontuetan ekitaldi horri buruz konparazioz jasotako informazioari buruzkorik ere. Gai horri dagokionez, gure iritzia ez da aldatu.

• Apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduaren bitartez, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokor berria onetsi zen eta ezarri zen Estatuko Administrazioaren Sektore Publikoko entitateek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharko zutela.

Horrekin lotuta, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legean ezartzen da Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Foru Komunitateko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onetsi behar duela Estatuko sektore publikoaren ildotik. Onetsi ezean, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak Estatuko sektore publikorako onesten duen Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra aplikatuko da.

Kontu-hartzailetzak NUPen 2024ko urteko kontuei buruz eginiko txostenean jasotzen da aipatu departamentuak ez zuela espresuki onetsi kontabilitate plan orokor berria eta NUPek ez zuela gai horri buruzko jarraibiderik jaso; hortaz, plan hori ez zen aplikatu 2024an.

NUPen urteko kontuak osatzen dituzten kontabilitateko egoera-orriak ez lirateke nabarmen aldatuko 2010ean onetsitako kontabilitate plana aplikatuta; hala ere, hura ez aplikatzeak aipatu plana bere osotasunean ez aplikatzea dakar, ez baita aurkeztu ez ondare garbian izandako aldaketen egoera-orririk ez diru-fluxuen egoera-orririk.

• Europar Batasunak erabaki zuen 750.000 milioi euro bideratzea estatu kideen multzoari, Next Generation funtsen bitartez, COVID-19aren pandemiaren eragina samurtzeko eta ekonomiaren suspertzeari bultzada emateko.

2021-2024 epean, NUPek guztira 20,36 milioi jaso zituen funts horietatik, honela xehakaturik:

	2021	2022	2023	2024	Guztira
Estatuko Administrazio Orokorraren transferentzia arruntak	2.423.568	2.500.780	4.441.082	2.143.362	11.508.791
Estatuko erakunde autonomoen transferentzia arruntak	-	1.936.409	-24.281	-	1.912.128
Autonomia-erkidegoen transferentzia arruntak	-	595.901	501.561	720.448	1.817.910
Enpresa pribatuen transferentzia arruntak	-	-	-	117.450	117.450
Autonomia-erkidegoen kapital transferentziak	-	3.098.000	-	1.900.000	4.998.000
Beste diru-sarrera batzuk	-	-	-	3.502	3.502
Guztira	2.423.568	8.131.090	4.918.362	4.884.762	20.357.781

Jasotako funtsetatik, 2024ko abenduaren 31ra bitartean NUPek 12,57 milioi erabili ditu, honela xehakatuta:

	2021	2022	2023	2024	Guztira
Gastu arruntak	-	1.353.364	3.141.668	2.489.085	6.984.117
Kapitaleko gastuak	1.798	631.549	4.296.141	653.478	5.582.966
Guztira	1.798	1.984.913	7.437.809	3.142.563	12.567.083

Funts horiek honako proiektu hauetara bideratu ziren:

Proiektua	2021	2022	2023	2024	Guztira
UPNA-Green: eraikin publikoak berritzea	-	78.300	2.180.009	198.924	2.457.233
Birkualifikazioa: irakasle eta ikerlarien prestakuntza eta gaikuntza	-	1.040.471	1.020.685	334.530	2.395.686
EQC2021 Gela garbia: indartzea, gaitasunak, azpiegiturak eta ekipamendu zientifiko-teknikoa	-	222.000	1.746.800	-	1.968.800
UNIDIGITAL: azpiegitura digitalak hobetzea, ekipamendu, teknologia, irakaskuntza eta ebaluazio digitalak	--	358.843	126.788	97.837	583.467
DATUPNA: eraldatze digitala eta modernizazioa	-	-	8.467	55.549	64.015
Gainerako ikerketa-proiektuak	1.798	285.299	2.355.060	2.455.724	5.097.881
Guztira	1.798	1.984.913	7.437.810	3.142.563	12.567.083

Ikusten denez, gastuaren ehuneko 59 bost proiekturen artean banatzen da, eta gainerako ehuneko 41a ikerketa-proiektuei dagokie.

Funtsen denboratasuna 2026an amaitzen da

IX. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren erantzukizuna

NUPeko Kudeatzailetzak, errektorearen zuzendaritzapean eta NUPeko estatutuen 43. artikuluaren arabera, bere erantzukizuna du urteko kontuak prestatzea. Gobernu Kontseiluak proposatuta, Gizarte Kontseiluak onetsiko ditu kontu horiek, halako moldez non irudi leiala emanen baitute NUPen ondareaz, finantza-egoeraz, emaitzez eta aurrekontu-exekuzioaz, aplikatzekoa den informazio finantzarioko araudiari jarraikiz. Erantzukizun du, halaber, beharrezkotzat jotzen duen kontrola egitea, halakoa zeinak modua emanen baitu urteko kontuak iruzur edo okerraren ondoriozko akats materialik gabe prestatu eta aurkezteko.

Gizarte Kontseiluak onetsi zituen NUPen 2024ko kontuak, 2025eko ekainaren 25ean.

Urteko kontuak egiteko erantzukizunaz gainera, Kudeatzailetzak bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

X. Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure helburuak dira ziurtasun egoki bat lortzea, urteko kontuek iruzur edo erroreen ondoriozko akats materialik oro har ez edukitzeaz, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa araudiarekin bat etortzeaz, erregulartasunari buruzko fiskalizazio-txosten bat jaulki ahal izateko, gure iritzia jasotzen duena.

Ziurtasun egoki hori ziurtasun handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontroleko organoei buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen duenik errore material bat edo urraketa muntadun bat, halakorik dagoenean. Okerrak iruzurraren edo akatsen ondoriozkoak izaten ahal dira, bai eta legedia ez betetzearen ondoriozkoak ere, eta materialtzat hartzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, eta, betiere, arrazoiz aurreikusten ahal bada txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragina izanen dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo-kontroleko organoei buruzko araudiarekin bat etorriz, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

• Identifikatu eta baloratu egiten ditugu iruzur edo oker baten ondoriozko akats materiala egoteko eta legeak ez betetzeko dauden arriskuak, arrisku horiei erantzuteko auditoretza-prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu, eta behar adinako eta behar bezalako auditoretza-ebidentzia lortzen dugu gure iritziari oinarri emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo urraketa bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko akats material bat ez atzematekoa baino; izan ere, iruzurrak bere barne izaten ahal ditu kolusioa, faltsutzea, nahitako omisioak, propio eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolarengandiko ihesa.

• Fiskalizaziorako esanguratsua den ezagutza, barne-kontrolari buruzkoa, lortzen dugu, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatze aldera; eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.

• Ebaluatzen dugu ea aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak ote diren, ea kontabilitate-estimazioak zentzuzkoak diren, eta ea egokia den kudeaketa-organoak emandako informazioa.

• Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, azaleratutako informazioa barne, eta ea kontu horiek irudi leiala adierazteko moduan azaltzen ote dituzten transakzioak eta horien azpiko egitateak.

Erakundearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, jorratze aldera planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta horiek egiteko unea, fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuak, eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari dagokionez identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri. Entitateko gobernu-organoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu

zein gai izan diren fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzan giltzarri izan direnak.

XI. Aurreko txostenetan emandako gomendioen jarraipena

Ganberak NUPi buruzko bere azken txostena 2023ko azaroan jaulki zuenez geroztik, honako gomendio muntadun hauei eusten zaie:

a) *Foru Komunitatearen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onetsi ezean, bere zabaltasun osoan aplikatzea Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra, 2011ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoena.*

b) *Kontabilitate analitikoa ezarriz amaitzea, eta ikertze-jarduerarekin sortzen diren kostu ez-zuzenekoak zehaztea.*

Halaber, finantza-fiskalizazioaren eta legedi-betetzearen fiskalizazioaren emaitza gisa, beste gomendio batzuk jaso ditugu txosten honen 4., 5. eta 6. gehigarrietan.

Lan hau gauzatzeko arduradunak –Karen Moreno Orduña auditoreak– proposatuta ematen da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondotik.

(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak digitalki sinatua, alboan ageri den egunean)

1. gehigarria. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2024ko ekitaldiko urteko kontuen laburpena[2]

2024ko aurrekontuaren likidazioa

2024ko gastu-aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoka

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Aldaketa	Bateratua	ABG	Betetzea (%)	Ordainduta-koa
Langileria-gastuak	80.013.278	14.012.181	94.025.459	87.165.070	93	87.164.422
Ond. eta zerb. gastu arruntak	14.734.020	17.180.294	31.914.314	17.117.178	54	15.395.223
Finantza-gastuak	33.600	18.000	51.600	38.813	75	38.535
Transferentzia arruntak	959.962	4.380.379	5.340.341	3.116.627	58	1.607.582
Inbertsio errealak	22.072.974	12.286.033	34.359.007	26.264.111	76	24.628.679
Aktibo finantzarioak	5.000	-	5.000	-	-	-
Guztira	117.818.834	47.876.886	165.695.720	133.701.800	81	128.834.441

2024ko diru-sarreren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoka

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako au-rreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Eskubide ai-tortu garbiak	Beteta (%)	Diru-bilketa garbia
Tasak, prezio publikoak eta bes-telakoak	14.945.558	2.450.744	17.396.302	17.950.821	103	17.521.603
Transferentzia arruntak	85.945.895	17.809.437	103.755.332	101.972.366	98	101.972.366
Ondare bidezko diru-sarrerak	49.000	-	49.000	402.317	821	319.777
Inbertsio errealen besterentzea	-	-	-	1.074	-	1.074
Kapital-transferentziak	16.878.381	1.900.000	18.778.381	18.691.608	100	18.691.608
Aktibo finantzarioak	-	25.716.705	25.716.705	-	-	-
Pasibo finantzarioak	-	-	-	-7.171	-	-7.171
Guztira	117.818.834	47.876.886	165.695.720	139.011.015	84	138.499.259

[2] Gure txostena NUPen 2024ko ekitaldiko urteko kontuen eranskin gisa atxikita doa.

2024ko aurrekontu-emaitza

Kontzeptuak	Eskubide aitortu garbiak	Betebehar aitortu garbiak	Zenbate-koak
1. (+) Eragiketa ez-finantzarioak	139.018.186	133.701.800	5.316.386
2. (+) Finantza-eragiketak	-	--	-
I. EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2)	139.018.186	133.701.800	5.316.386
II. PASIBO FINANTZARIOEN ALDAKETA GARBIA	-7.171	-	-7.171
III. EKITALDIKO AURREKONTU-SALDOA (I + II)	139.011.015	133.701.800	5.309.216
3. (+) Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako kredituak			-
4. (-) Finantzaketa-desbideratze positiboak, finantzabide atxikia duten gastuetan, ekitaldiko baliabideetatik.			14.842.948
5. (+) Finantzaketa atxikia duten gastuen finantzaketa-desbideratze negatiboak			12.057.616
IV. Ekitaldiko aurrekontuaren saldo doitua (III + 3 + 4 + 5)			2.523.884

Diruzaintza-gerakina 2024ko abenduaren 31n

Kontzeptuak		Zenbatekoak
1 (+) Kobratzeko dauden eskubideak		1.166.238
(+) Aurrek. Diru-sarrerak: aurtengo ekitaldia	511.757	
(+) Aurrek. Diru-sarrerak: Itxitako aurrekontuak	310.064	
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetakoak	660.391	
(+) Merkataritzako eragiketak	-	
(-) Eginiko kobrantzak, behin betiko aplikatu gabeak	-	
Saldo kobragaitzak	315.974	
2 (-) Ordainkizun dauden obligazioak		-10.179.271
(+) Gastu-aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	4.904.267	
(+) Gastu-aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	100	
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetakoak	5.274.914	
(+) Merkataritzako eragiketetakoak	-	
(-) Eginiko ordainketak, behin betiko aplikazioaren zain	30	
3 (+) Funts likidoak		49.510.828
I. Diruzaintza-gerakina, guztira (1-2+3)		40.497.795
II. Atxikitako diruzaintza-gerakina		30.240.755
III. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina (I-II)		10.257.040

Egoera-balantzea, 2024ko abenduaren 31koa

AKTIBOA	2023	2024	PASIBOA	2023	2024
A) IBILGETUA	133.905.397	151.497.653	A) FUNTS BEREKIAK	167.402.014	190.971.827
II. Ibilgetu ez-materialak	156.910	107.194	I. Ondarea	127.895.838	127.895.838
2. Jabetza industriala	691.463	704.510	1. Ondarea	123.083.338	123.083.338
3. Aplikazio informatikoak	9.784.992	9.794.609	3. Lagapen bidez jasotako ondarea	5.385.399	5.385.399
6. Bestelako ibilgetu ez-materiala	179.919	179.919	5. Lagapen bidez eskuratutako ondarea	-572.899	-572.899
8. Amortizazioak	-10.499.465	-10.571.845			
III. Ibilgetu materialak	133.042.757	150.684.728			
1. Lursailak eta eraikinak	190.385.444	210.430.941	III. Aurreko ekitaldietako emaitzak	20.433.708	39.506.176
2. Instalazio teknikoak eta makineria	57.518.124	59.585.778	1. Aurreko ekitaldietako emaitza positiboak	20.433.708	39.506.176
3. Tresneria eta altzariak	19.796.431	20.471.067			
4. Bestelako ibilgetua	22.414.021	23.238.165			
6. Amortizazioak	-157.071.263	-163.041.223	IV. Ekitaldiko emaitzak	19.072.468	23.569.813
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	705.730	705.730	B) ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	937.786	825.978
1. Epe luzeko baloreen zorroa	692.729	692.729	c) EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	456.575	197.642
3. Epe luzeko eratutako fidantza eta gordailuak	13.001	13.001	II. Epe luzeko bestelako zorrak	456.575	197.642
B) ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	-	-	2. Bestelako zorrak	456.575	197.642
C) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	44.096.725	50.677.096			
II. Zordunak	5.333.795	1.166.268	D) EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	9.205.747	10.179.301
1. Aurrekontuko zordunak	5.038.885	821.821	III. Hartzekodunak	9.205.747	10.179.301
2. Aurrekontukoak ez diren zordunak	132.864	228.912	1. Aurrekontuko hartzekodunak	4.688.588	4.904.387
4. Administrazio publikoak	519.279	431.478	2. Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	594.385	735.630
5. Bestelako zordunak	30	30	4. Administrazio publikoak	3.796.913	4.336.445
6. Hornidurak	-357.263	-315.974	5. Bestelako hartzekodunak	-	-
III. Aldi baterako finantza-inbertsioak	3.000.000	3.000.000	6. Hartutako fidantza eta gordailuak, epe laburrekoak	125.859	202.839
1. Epe laburrerako baloreen zorroa	3.000.000	3.000.000	IV. Periodifikazioaren ondoriozko doitzeak	-	-
IV. Diruzaintza	35.762.930	46.510.828			
Orokorra, guztira (A+B+C)	178.002.122	202.174.749	Guztira (A+B+C)	178.002.122	202.174.749

2024ko emaitza-kontua

ZORRA	2023	2024	HARTZEKOA	2023	2024
A) GASTUAK	110.890.080	116.113.371	B) DIRU-SARRERAK	129.962.548	139.683.183
1. Zerbitzu eta prestazio sozialen funtzionamendu gastuak	108.375.155	112.995.318	1. Zerbitzu-ematea	15.430.971	14.283.385
a) Langileria-gastuak:	83.788.315	87.431.756	a) Zerbitzu-emateagatiko edo jarduerak egiteagatiko tasak	1.373.325	1.419.328
a.1) Soldatak, lansariak eta antzekoak	70.052.192	72.826.809	b) Zerbitzu-emateagatiko edo jarduerak egiteagatiko prezio publikoak	13.799.189	12.631.912
a.2) Gizarte-zamak	13.736.123	14.605.547	c) Jabari publikoaren erabilera pribatiborako edo aprobetxamendu berezirako prezio publikoak	258.457	232.146
c) Ibilgetua amortizatzeko zuzkidurak	6.765.081	8.698.911	2. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk	3.451.102	4.123.482
d) Trafiko-horniduretako aldeak	-263.762	-41.289	a) Diru-itzulketak	29.076	29.814
d.1) Kobraezinak diren kredituengatiko galeren eta horniduren alorrean izandako aldea	-263.762	-41.289	c) Kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	3.331.111	3.692.052
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	18.054.470	16.867.127	c.1) Diru-sarrera osagarriak eta beste arrunt batzuk	3.331.111	3.580.244
e.1) Kanpoko zerbitzuak	17.164.528	16.836.360	c.2) Arrisku eta gastuetarako horniduraren gaindikina	-	111.808
e.2) Tributuak	94.081	3.767	d) Kapitaleko partaidetzetatiko diru-sarrerak	5.569	12.251
			f) Beste interes batzuk eta antzeko diru-sarrerak	80.748	389.146
e.3) Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	795.861	-	f.1.) Beste interes batzuk	80.748	389.146
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	27.281	34.583	g) Kanbioan izaniko alde positiboak	4.598	219
f.1) Zorrengatik	27.281	34.583	3. Transferentziak eta dirulaguntzak	107.753.378	121.008.052
h) Kanbioan izaniko alde negatiboak	3.772	4.231	a) Transferentzia arruntak	79.254.518	84.198.530
2. Transferentziak eta dirulaguntzak	2.369.164	3.116.627	b) Dirulaguntza arruntak	17.409.256	18.089.689
a) Transferentzia arruntak	91.454	86.934	c) Kapital-transferentziak	10.073.688	18.722.535
b) Dirulaguntza arruntak	2.277.711	3.029.693	d) Kapital-dirulaguntzak	1.015.816	-2.702
3. Ezohiko galera eta gastuak	145.760	1.426	4. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak	3.327.098	268.265
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	-	1.169	a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	-	1.074
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	145.760	257	c) Ezohiko diru-sarrerak	51.933	15.428
			d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta mozkinak	3.275.165	251.762
Aurrezkia	19.072.468	23.569.813	Desaurrezkia	-	-

2. gehigarria. Nafarroako Unibertsitate Publikoa

NUP-Nafarroako Unibertsitate Publikoa apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legearen bitartez sortutako zuzenbide publikoko erakunde bat da, nortasun juridiko berekiduna, eta eginkizuntzat irakaskuntzaren, ikasketaren eta ikerketaren bitartezko goi-mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa duena.

Gobernu- eta administrazio-organoak

NUPen gobernu- eta administrazio-organoak honako hauek dira:

- Kide anitzeko organoak:
  a) Esparru orokorrekoak: Gizarte Kontseilua, Gobernu Kontseilua eta Unibertsitateko Klaustroa.
  b) Esparru partikularrekoak: Zentroko Batzarra, Saileko Kontseilua eta Ikasleen Kontseilua.
- Pertsona bakarreko organoak:
  a) Orokorrak: errektorea, errektoreordeak, idazkari nagusia, kudeatzailea eta unibertsitateko komunitatearen arartekoa.
  b) Partikularrak: dekanoa edo eskolako zuzendaria eta saileko zuzendaria.

Antolaketa-egitura

NUPek bi campus dauzka, Iruñean eta Tuteran kokatuak. Azken hori, 2008-09 ikasturtean inauguratua.

Honako hau da NUPen antolaketa-egitura:

- Lau fakultate: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea, Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Zientzia Juridikoen Fakultatea eta Osasun Zientzien Fakultatea.

- Bi goi-mailako eskola tekniko: Nekazaritza Ingeniaritzako eta Biozientzietako Goi Mailako Eskola Teknikoa eta Industria, Informatika eta Telekomunikazio Ingeniaritzako Goi Mailako Eskola Teknikoa.

- 11 departamentu: Agronomia, Bioteknologia eta Elikadura; Zientziak; Osasun Zientziak; Giza eta Hezkuntza Zientziak; Zuzenbidea; Ekonomia; Estatistika, Informatika eta Matematika; Enpresen Kudeaketa; Ingeniaritza; Ingeniaritza Elektrikoa, Elektronikoa eta Komunikaziokoa; eta Soziologia eta Gizarte Lana.

- Zazpi ikerketa-institutu: Mutiloa Institutua, Institute of Smart Cities (ISC), Institute for Advanced Materials (INAMAT), Institute for Advanced Research in Business in Economics (INARBE), Institute on Innovation & Sustainable Development in Food Chain (ISFOOD), Institute for Advanced Social Research

(ICOMMUNITAS) eta Institute for Multidisciplinary Research in Applied Biology (IMAB).

• Doktoretza-eskola bat eta Hezkuntza Berrikuntzaren Goi Mailako Ikastegia.

• 22 katedra (2024an jardunean zeudenak): “Energia Berriztagarrien Katedra”, “Hiritartasunari, Bizikidetzari eta Aniztasunari buruzko UNESCO Katedra”, “Nafarroako Ondare Materiagabearen Katedra”, “AN Taldearen Katedra”, “4.0 Industriaren Katedra, Nafarroako Industria Ingeniaritzako Graduatuen eta Ingeniari Teknikoen Elkargoa", “Jakintza eta Kultura Zientifikoa Zabaltzeko Katedra”, “Enpresa Familiarren Katedra”, “Ingeniaritzaren eta Enpresaren Katedra” , “Emakumearen, Zientziaren eta Teknologiaren Katedra”, “Zientziaren eta Ondarearen Errege Bardea Katedra”, ”Aprender-Ikasi Nafarroako Kutxa Fundazioa” , “Biologia Sintetikoa-CNTA Katedra", "Logistikaren Katedra", “Tokiko Jasangarritasunari buruzko NILSA Katedra”, “Genero Ikasketen eta Ikerketa Feministen Katedra”, ”Nekazaritzako Elikagaien arloko Transferentziaren eta Berrikuntzaren Katedra” “Ekonomia Sozialaren eta Kooperatibismoaren Katedra”, “Ekonomia Zirkularraren Katedra”, “Teknologia Elektronikoaren Katedra”, “TRACASA Katedra”, “Automobilaren Ingeniaritzaren Katedra” eta “Zibersegurtasunaren Katedra”.

• Ikerketa biomedikoko zentro publiko misto bat (Nafarroako Gobernua/NUP), Navarrabiomed-NUP izenekoa.

Lotutako entitateak

Unibertsitatea-Gizartea Fundazioa (aurrerantzean, fundazioa) Gobernu Batzarraren 1996ko abenduaren 20ko erabaki baten bidez sortu zen, 24.040 euroko ekarpena eginda hasieran. Sorrerako helburu gisa zuen elkarrizketa sustatzea eta NUPen eta Nafarroako gizartearen arteko lankidetza bideratzea.

Fundazioaren gobernu-, zuzendaritza- eta administrazio-organoak Patronatuko Batzarra, Zuzendaritza Batzordea eta zuzendari kudeatzailea dira.

NUPek hurrengo orrialdeko koadroan zehazten diren entitateetan parte hartzen du, bere oroitidazkian azaltzen duenez.

Entitatea	Inbertsioaren urtea	Zenbatekoa
Start Up Capital Navarra SA	2000 eta 2017	34.594
Portal Universia, SA	2001	13.465
Sigma Gestión Universitaria, AIE	1996 eta 2002	200.137
Amado Alonso Fundazioa	2001	1.202
Campus Iberus Partzuergoa	2012	3.000
Nadetech Innovations SA	2015	8.000
Naudit High Performance Computing and Networking, SL	2015	1.782
Movalsys SL	2016	1.150
Eversens, SL	2017	417
Bioinsentics SL	2017	1.000
Pyroistech S.L.	2019	320
Neuraptic S.L.	2020	2.102
Eversens SL	2021	9
Genbioma Aplicaciones S.L.	2022	152
Menditech Sensores de Fibra Óptica S.L.	2022	158
Vors Control S.L.	2022	150
Tairel Data S.L.	2022	1.050
Guztira		692.729

Oroitidazkiak halaber azaltzen du egoitza soziala NUPen duela Jaime Brunet Fundazioak, zeinaren helburua baita giza duintasunarekiko, oinarrizko askatasunekiko eta giza eskubideekiko begirunea sustatzea.

Araubide ekonomiko-finantzarioa, aurrekontu-alorrekoa eta kontabilitatekoa

Nafarroako Gobernuak 2021eko abenduaren 1ean hartutako erabakiaren bidez onetsi egin zen NUP 2022-2024 epean finantzatzeko Hitzarmen Urteaniztuna, non Nafarroako Gobernuaren konpromisoa jaso baitzen, Unibertsitateko irakaskuntza- eta ikerketa-jardueraren funtzionamendu normala bermatzekoa eta haren autonomia finantzarioa sustatzekoa.

NUPek, bere aldetik, bere gain hartu zuen konpromisoa izan zen eraginkortasunez kudeatzea Nafarroako goi-mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoaren obratze-ardura, eta 2023ko abendurako bukatzea kostu-kontabilitatearen ezarpena.

Kontabilitate analitikoaren ezarpenari dagokionez, 2021eko maiatzean NUPek kontratu bat sinatu zuen, 109.809 eurokoa (BEZa kanpo), bere kostu-eredua pertsonalizatzekoa. Amaiera aurreikusia 2022ko abendua zeukan. 2021eko azaroan NUPek exekuzio-epea aldatu, eta 2023. urtea ezarri zuen amaiera-urte bezala, arrazoi teknikoengatik.

2022ko ekainean, Kontabilitate Analitikoaren Atala sortu zen Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez, kontabilitate analitikoa ezartzeko proiektuari beharrezkoak zituen egitura eta lidergoa emateko.

2022ko urrian, NUPek berriz aldatu zuen kontratuaren exekuzio-epea, lanen hasiera atzeratu zuten arrazoi teknikoen eta antolaketa-arrazoien ondorioz. Aldaketa honen txostenean azaltzen denez, mugarrien kronograma zaila zen zehazten, eta horrenbestez, ez zen kontratu-exekuziorako data zehatzik ezarri.

Ezarpena aurrera joan ahala egiaztatu zen baliatutako tresna teknologikoek ez zituztela eskaintzen neurri honetako proiektu baterako behar ziren efizientzia eta autonomia. Hori dela-eta, 2024ko apirilean barneko analisi prozesu bat hasi zen, eta software espezializatuaren kontratazioa lizitatzea erabaki zen. Kontratu hori 2025eko urriaren 1ean esleitu zen, eta tresna berria 2026ko irailean abian jartzea aurreikusten da.

2024rako Nafarroako aurrekontu orokorretatiko finantzaketa 86,53 milioikoa da.

Plan estrategikoa

NUPek onetsitako azken plan estrategikoa 2020-2023 aldirako zen, eta 2024ra luzatu zen. Txosten hau idatzi den egunean, entitatea bere seigarren plana –2025-2028 urteetarako– onetsi zain dago.

Adierazle ez-finantzarioen bilakaera

Txosten honen I. eranskinean erakusten dugu NUPi buruzko adierazle ez-finantzarioen multzo baten 2022-2024 epealdiko bilakaera.

3. gehigarria. Arau-esparrua

2024an NUPi aplikatzekoa zaion zuzenbide-esparrua honako arau hauek osatzen dute, funtsean:

Estatuko araudia

• 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 20koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.

• 2/2023 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Unibertsitate-sistemari buruzkoa.

• 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoko behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa.

• 4/2023 Legea, abenduaren 28koa, 2024rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

• EHA/1037/2010 Agindua, apirilaren 13koa, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.

Foru araudia

• 8/1987 Foru Legea, apirilaren 21ekoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzen duena.

• 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

• 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

• 15/2008 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluari buruzkoa.

• 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzkoa.

• 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako administrazio publikoetan 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.

• 2/2024 Foru Legea, martxoaren 13koa, Nafarroako 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

• Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketarako 2022-2024 hitzarmena, Nafarroako Gobernuarekin.

Araudi berekia

- Estatutuak, maiatzaren 12ko 110/2003 Foru Dekretuaz onetsiak eta Nafarroako Gobernuaren 2011ko martxoaren 21eko erabakiaz aldatuak.
- Barne Kontroleko Erregelamendua, Gobernu Kontseiluak 2018ko otsailaren 21ean onetsia.
- 2024ko aurrekontuaren betetze-oinarriak.
- 2024ko ekitaldiaren itxierari buruzko arauak.

4. gehigarria. Erregulartasunari buruzko fiskalizazioko oharrak eta aurkitutako beste gorabehera batzuk

Ondoren ohar, iruzkin eta argibide gehigarri batzuk jasotzen dira, Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesekoak gerta daitezkeenak.

Orobat, gehitu ditugu Mankomunitatearen kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetze aldera Ganbera honen ustez beharrezkoak diren gomendioak.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2024ko aurrekontua

NUPeko Gizarte Kontseiluak 2023ko abenduaren 22an onetsi zuen NUPen 2024rako hasierako aurrekontua, 117,82 milioi egiten zuena diru-sarrera eta gastuetan.

Hasierako kredituek 47,88 milioiko aurrekontu-aldaketa garbiak izan dituzte, eta horrek esan nahi du ehuneko 41eko igoera izan dela. Horri buruz, hauxe esan behar dugu:

- Gastuetan, nabarmentzen da ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuek izandako 17,18 milioiko gehikuntza –hasierako kredituaren ehuneko 117ko igoera, hain zuzen–, langileria-gastuen 14,01 milioiko gehikuntza (ehuneko 18, hasierako kredituekiko), eta inbertsio errealek izandakoa, 12,29 milioikoa (ehuneko 56, hasierako kredituarekiko).

- Diru-sarreren aldaketei dagokienez, hazkunde handienak aktibo finantzarioetan (25,72 milioi) eta transferentzia arruntetan (17,81 milioi) izan dira.

- Hona hemen 2024an onetsitako aurrekontu-aldaketak:

Aurrekontu-aldaketa mota	Zenbatekoa
Kreditu gehikuntza	14.873
Kreditu-gerakinak gaineratzea	26.966.886
Diru-sarreren ondoriozko kreditu-sortzea	15.504.479
Aurrerakinak[3]	6.156.986
Diru-sarrerak itzultzeagatiko doikuntzak	-766.339
Guztira	47.876.886

Aurreko taulan ez dira kreditu-transferentziak sartu, zeren eta eragiketa horiek ez baitute aurrekontu-eraginik kredituen guztizko zenbatekoan.

[3]Aldaketa mota hauek ez daude aurreikusita aurrekontuei buruzko araudian; hala ere, lotura zuzena dute NUPen ikerketa finantzatzeko jarduerarekin

Aurrekontu-likidazioa

Behin betiko kredituak 165,70 milioikoak izan dira, aipatutako aldaketak egin ondoren. Behin betiko kreditu horietatik, 64,58 milioi atxikiak dira; eta gainerakoa, berriz, 101,12 milioi, atxiki gabekoak.

Aitortutako betebeharrek 133,70 milioi egin dute, eta betetzearen eta ordainketaren portzentajeak ehuneko 81 eta ehuneko 96 izan dira, hurrenez hurren. Nabarmentzen ditugu langileria-gastuen betetze-maila altua (ehuneko 93) eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten betetze-maila baxua (ehuneko 54, finantzaketa atxikia duten ikerketa-gastuak urte anitzekoak izaten baitira), bai eta transferentzia arruntena ere (ehuneko 58, graduondoko bekei buruzko gastu aitortua 40.648 eurokoa izan baita, behin betiko kredituen 1,74 milioien aldean).

Aitortutako eskubideek 139,01 milioi euro egiten dute, eta betetze- eta kobrantza-maila ehuneko 84 eta ehuneko 99,6 dira hurrenez hurren. Honako hauek dira exekuzio-portzentaje handiena duten kapituluak: tasak eta prezio publikoak, ehuneko 105ekin, eta transferentzia arruntak, ehuneko 96rekin.

2024an NUPek gastatutakoaren xedeak eta finantzaketa-iturriak, 100 euro bakoitzeko:

Gastuaren izaera	Zenba-	Finantzaketa-iturria	Zenbatekoa
Langileria	65	Tasak, prezio publikoak	13
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	13	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	87
Transferentzien bidezko gastuak	2		
Inbertsio errealak	20		
Guztira	100		100

Hurrengo taulan, NUPen 2024ko gastu-politikak erakusten ditugu:

Gastu-politika	Gastuaren zenbatekoa
Irakaskuntzaren eta ikerketaren garapena	56.616.164
Orotariko jarduerak	51.920.163
Ikerketa zientifiko, tekniko eta aplikatua	15.499.591
Irakaskuntzaren kudeaketa	4.451.630
Unibertsitate-hedadura	2.497.830
Kanpo-harremanak	2.076.290
Gizarte-ekintza	640.133
Guztira	133.701.800

2024an NUPen gastuak honako ardatz nagusi hauek izan ditu: irakaskuntzaren eta ikerketaren garapena –ehuneko 42–, jarduera orokorrak, Osasun Zientzien Fakultatearen eraikina barne (16,69 milioi) –ehuneko 39– eta ikerketa zientifiko, tekniko eta aplikatua –ehuneko 12–.

Hurrengo taulan, 2023 eta 2024ko aurrekontu-likidazioarekin zerikusia duten adierazleen multzo baten balio-alderaketa bat erakusten dugu:

(milakotan)

Adierazleak eta magnitudeak	2023	2024	Aldea (%), 2024-2023
Gastua, guztira	123.005	133.701	9
Gastu arruntak (1etik 4ra bitarteko kapituluak)	103.436	107.438	4
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kap.)	103.405	107.399	4
Kapital-gastuak (6. eta 7. kap.)	19.569	26.264	34
Diru-sarrerak, guztira	127.018	139.011	9
Diru-sarrera arruntak (3tik 5era bitarteko kapituluak)	115.960	120.326	4
Tasen, prezio publikoen eta bestelakoen bitartezko diru-sarrerak (3. kap.)	18.891	17.951	-5
Transferentzien bidezko diru-sarrerak	108.047	100.431	13
Transferentzien bidezko diru-sarrerek zenbat egiten duten diru-sarreren guztizkoan (%)	85	87	2
Finantza eragiketen diru-sarrerak (8. eta 9. kap.)	-16	-7	55
Etorkizuneko ekitaldietarako aurrekontu-gastuen konpromisoak	28.550	16.770	-41

Horiek aztertuta, ondokoak adierazi behar ditugu:

• Guztizko gastuaren gorakada (10,70 milioi) langileria-gastutik eta inbertsio-gastutik dator nagusiki, 6,69 eta 3,71 milioi euro handitu baitira hurrenez hurren.

• Diru-sarreren gorakadaren (11,99 milioi) arrazoia da, funtsean, kapital-transferentzien eta transferentzia arrunten hazkundea (7,62 eta 5 milioi, hurrenez hurren).

• Inbertsio-gastuak ehuneko 34 hazi dira, Osasun Zientzien Fakultatearen eraikin berriaren eraikuntzagatik.

4.2. NUPen egoera ekonomiko-finantzarioa 2024ko abenduaren 31n

Hurrengo taulan, NUPen 2023. eta 2024. urteetako egoera ekonomiko-finantzarioarekin zerikusia duten adierazle batzuen bilakaera erakusten dugu:

(milakotan)

Adierazleak	2023	2024	Aldea (%) 2024/2023
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	4.029	5.316	32
Aurrezki gordina	12.555	12.927	3
Finantza-zama (gastuen 3. eta 9. kapituluak)	31	39	26
Aurrezki garbia	12.524	12.888	3
Aurrekontu-emaitza doitua	3.985	2.524	-37
Diruzaintzako gerakina, guztira	34.891	40.498	16
Atxikitako diruzaintza-gerakina	27.004	30.241	12
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	7.887	10.257	30
Funts berekiak	167.402	190.972	14
Epe luzeko zorpetzea	0,46	0,2	-57
Zorrak diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoa	0,4	0,2	-50
Diruzaintza	35.763	46.511	30

Arestiko datu horiek kontuan hartuz, ondoko alderdiak aipatu nahi ditugu:

• Kapitulu honetako gastuak 2023koen antzekoak izan ziren, eta ehuneko 3 egin zuten gora. Aurreko urtearekin alderatuta zama finantzarioak ehuneko 26 gora egin badu ere, balio absolutuetan zenbateko hori 7.761 eurokoa da.

• Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 5,32 milioikoa da, 2023koa baino ehuneko 32 handiagoa; horren arrazoi nagusia da kapital-transferentziek eta transferentzia arruntek 7,62 eta 5 milioi egin dutela gora, hurrenez hurren. Aurrekontu-emaitza doitua 2023koa baino ehuneko 37 txikiagoa izan zen, finantzaketa-desbideratzeen eragina dela-eta; izan ere 2024an 2,79 milioiko murrizketa osoa izan zen, 2023koa 27.689 eurokoa besterik izan ez zenean.

• Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak ehuneko 30 egin du gora, eta 2,37 milioikoa da.

Hitz batean: 2024ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioaren azterketatik ondorioztatzen dugu ezen NUPek egoera ekonomiko saneatua agertzen duela. Adierazle ekonomiko eta finantzarioek balio positiboak erakusten dituzte, diruzaintzako saldoa 40,50 milioikoa izanda eta atxiki gabeko diruzaintza-gerakina, 10,26 milioikoa. Halaber, epe luzeko zorrik ez dago ia.

4.3 Langileria-gastuak

Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoaren 57.6 artikuluak ezarri bezala, Nafarroako Gobernuak, 2023ko abenduaren 20an, NUPen aurrekontuaren onespenaren aurretik, haren langile-gastuen kostua baimendu zuen, guztira 80,01 milioian.

NUPen 2024rako aurrekontuak xehetasunezko informazioa dauka, bere langileei —irakasle eta ikertzaileei (IIL) nahiz teknikari eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileei (TKAZL)— buruzkoa, kopuruari, kategoriari eta kostuei dagokienez. Horrekin batera, bi langile mota horien lanpostuen zerrenda jasotzen du. Hala eta guztiz ere, eta lehen aipaturiko 57.6 artikuluak dioenaz bestela, eranskin bat falta du, proposatuko diren hornitze berriko lanpostuen berri emanen lukeena.

2024an, langile-gastuak 87,17 milioikoak izan dira; guztizko gastuaren ehuneko 65, hain zuzen. Horiek honela banatzen dira gastu-kontzeptuaren arabera:

Langileria-gastuak	Aitortutako betebehar garbiak (2023)	Aitortutako betebehar garbiak (2024)	2024/2023 aldearen %
IILen lansariak	41.470.976	43.960.507	6
TKAZLen lansariak	19.481.360	20.450.953	5
Ikertzaileen lansariak	8.051.006	7.875.667	-2
Beste ordainsari batzuk	920.799	356.901	-61
Gizarte-zamak	13.424.209	14.338.353	7
Prestakuntza	107.557	182.688	70
Guztira	83.455.906	87.165.070	4

2023koen aldean, langileria-gastuak ehuneko 4 handitu dira, nagusiki plantillaren hazkunde begetatiboagatik eta langileen lansariak ehuneko 2,5 handitu izateagatik.

Gastu osoaren ehuneko 50 dagokie irakasle eta ikertzaileen ordainsariei; ehuneko 23, teknikari, kudeatzaile eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordainsariei; eta ehuneko 9, ikertze-langile enplegatuei (ILE).

Irakasle eta ikertzaile diren langileak (IIL)

Gobernu Kontseiluak 2024ko abenduaren 16an onetsitako lanpostu-zerrendaren arabera, 2024ko abenduaren 31n lanpostu kopurua 1.354koa zen. Langile-kategorien arabera, honela sailkatzen dira:

Kategoria	2023	2024
Funtzionarioak	469	512
Unibertsitateko katedraduna	133	143
Unibertsitateko titularra	330	363
Unibertsitate-eskolako titularra	4	4
Bestelako irakasleak	2	2
Kontratatuak	974	842
Kontratatutako doktorea	200	182
Doktore laguntzailea	100	145
Laguntzailea	8	8
1. motako irakasle elkartua	95	63
2. motako irakasle elkartua	385	278
3. motako irakasle elkartua	153	122
Ordezko irakaslea LOU	12	10
Irakasle bisitaria	7	4
Lan kontratudun irakasle iraunkorra	13	29
Irakasle ikerlari doktore mugagabea	1	1
IILak, guztira	1.443	1.354

Lanpostu kopuruak ehuneko 6 egin du behera (89 postu), funtsean irakasle elkartuak 633 izatetik 463 izatera pasa direlako. Horren arrazoia izan zen 2023an Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoaren (LOSU) onespena; izan ere, irakasle elkartuei elkartu maila emateko baldintzak aldatu zituen eta gaur egun haiek egiten zuten irakaskuntza-jardueraren zati bat figura sortu berri baten bidez –ordezko irakasleak– gauzatzen da. Figura berri hori LOSUn aurreikusten da, baimenak, aldi baterako bajak eta lanpostua gordetzeko eskubidea duten irakasleen murrizketak estaltzeko nagusiki, eta ez da lanpostu-zerrendan jasotzen.

Irakasle eta ikertzaileen lanpostuen ehuneko 20 hutsik zeuden 2024ko abenduaren 31n, ondoko taulan jasotzen denez:

Lanpostuak	2023	2024
Lanpostuak, guztira	1.443	1.354
Lanpostu hutsak	222	271
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	15	20
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak	72	55
Estalitako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean (%)	32	20

Lanpostu huts guztietatik, 55 lanpostu okupatuta zeuden. Okupatutako lanpostu huts horietatik, 54 dira kontratupeko irakasle doktoreentzakoak ziren, eta bat, ikerlari doktore mugagabe baterako.

2024rako enplegu publikoaren eskaintza (2024ko azaroaren 18ko NAO) 69 plazak osatzen zuten; horietatik, 44 ordezte-tasatik eratorriak ziren, 15 barneigoerakoak ziren, eta hamar egonkortze-tasa berariazkoari zegozkion. Plazak, nagusiki, ondoko lanpostuetarako izan ziren:

IIL lanpostua	LPEan jasotako lanpostuak	Deitutako lanpostuak
Unibertsitateko titularra	45	27
Unibertsitateko katedraduna	15	4
Lan kontratudun irakasle iraunkorra	9	8
Guztira	69	39

Egiaztatu dugunez, ordezte-tasagatik enplegu publikoaren eskaintzan jaso diren postuen kopuruak bete egiten zituen araudiak ezarritako betekizunak. Txosten hau idatzi den egunean, LPE honetan onetsitako lanpostuetatik 30erako deialdirik ez da egin. Aurreko urteetako LPEei dagokienez, 2022ko eskaintzatik unibertsitate-katedradun postu bat dago deitu gabe, eta 2023ko eskaintzatik, berriz, unibertsitateko titularrendako bi postu eta lan kontratudun irakasle iraunkorrendako beste bi.

Bestetik, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoak ezartzen du honako portzentaje hauek bete beharrekoak direla:

• Irakasle eta ikerlari funtzionarioen portzentajea, lanaldi osoko baliokidetasunen bidez zenbatuta, irakasle eta ikertzaileen kopuru osoaren gehiengoa izanen da.

NUPen Gardentasun Atarian jasotzen diren datuen arabera, portzentaje hori honako hau izan zen, 2023rako eta 2024rako:

	2023	2024
Funtzionarioen portzentajea, lanaldi osoko baliokidetasunean / lanaldi osoko IIL baliokideak	51,2	56

2024an, portzentajea ehuneko 56ra iritsi zen, 2023koa baino ehuneko 9 gehiago.

• Aldi baterako lan-kontratupeko irakasleen portzentajeak ezin izanen du gainditu irakasle eta ikertzaileen plantillaren ehuneko 8. 2024ko abenduaren 31n, ehuneko hori 16,67koa zen.

Teknikariak, kudeatzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak (TKAZL)

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen ekainaren 9ko 1131/2025 Ebazpenaren bidez onetsi ziren plantilla organikoa eta Unibertsitatean TKAZLen izendapen askeko zuzendaritza-karguetan diharduten langile finkoen eta bitartekoen zerrenda, 2024ko abenduaren 31koak. Ebazpen hori 2025eko ekainaren 20ko NAOn argitaratu zen.

Onetsitako plantillak 560 lanpostu ditu. Honako hau da haien sailkapena, araubide juridikoaren araberakoa, 2023koekin alderatuta:

Araubide juridikoa	2023	2024
Funtzionarioak	554	543
Kabineteko behin-behineko langileak	14	13
Izendapen askeko zuzendaritza-kargua, behin-behinekoa	4	4
Guztira	572	560

2024ko abenduaren 31n, TKAZLetako funtzionario-lanpostuak egoera honetan zeuden:

	2023	2024
Lanpostuak, guztira	572	560
Lanpostu hutsak	187	117
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	33	21
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak	112	51
Estalitako lanpostu hutsen %a lanpostu hutsen guztizkoaren gainean	60	44

2024an, TKAZLen lanpostu guztien ehuneko 21 hutsik zeuden, eta horien barruan, ehuneko 44 aldi baterako okupatuta zeuden.

2024rako enplegu-eskaintza publikoa (aurrerantzean EEP, 2024ko abenduaren 10eko NAO) 38 plazak osatzen zuten; horietatik 28, ordezte-tasatik eratorriak ziren; eta 10, egonkortze-tasa berariazkoari zegozkion.

Egiaztatu dugunez, EEPan ordezte-tasagatik sartu beharreko plazak kalkulatzeko zenbatutako bajetan ez zen pertsona bat aintzat hartu. Horrek esan nahi du EEPan 30 plaza sartu ahal zirela arrazoi horrengatik 28 beharrean, arauak jasotako ordezte-portzentajea aplikatuz gero.

Txosten hau idaztean, EEP honen bidez onetsitako plazetatik 23rako deialdirik ez da egin. Aurreko urteetako EEPetakoak diren plaza guztietarako deialdiak eginak daude.

Ikertze-langileak

IILez eta TKAZLez gainera, NUPen langile-erregistroen arabera, 2024ko abenduaren 31n 318 pertsona ari ziren ikerketa-jarduerekin zerikusia duten zereginetan. Hau da, lehia bidezko deialdi publikoetako ikertzaileak, proiektuen eta ikerketa-taldeen kargura, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoko 60. artikuluko kontratuetakoak eta laguntzako teknikariak.

Langileak eta aldibaterakotasun-indizea 2024ko abenduaren 31n

• 2024ko abenduaren 31n[4], 2.074 egiazko langile zeuden NUPen. Hona hemen xehetasunak:

	Funtzionarioak	Kontratudunak	Guztira
Irakasle eta ikertzaile diren langileak (IIL)	430	818	1.248
Teknikariak, kudeatzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak (TKAZL)	398	110	508
Ikertze-langile enplegatuak (ILE)	-	318	318
Langileak, guztira	828	1.246	2.074

Langileen ehuneko 60 IILak dira; ehuneko 25, TKAZLak, eta gainerakoak, ehuneko 15a, ILEak.

Txosten honekin batera doan II. eranskinean, NUPeko abenduaren 31ko egiazko langileen 2021-2024 urteetako bilakaera agertzen da.

• Behin-behinekotasun indizea kalkulatzeko, zatiketa egin da lanpostu huts okupatuen eta plantillaz gain kontrataturikoen baturaren eta 2024ko abenduaren 31n zegoen egiazko langile kopuruaren –plaza okupatuen, plaza huts okupatuen eta plantillaz gain kontrataturikoen batura gisa kalkulatuta– artean. IILen kasuan, ordezko irakasleak bai zenbakitzailean bai izendatzailean sartu ditugu.

[4]Horietaz gain, abenduaren 31n 139 pertsona zeuden ordezko irakasleen plazak okupatzen, aldi baterako bajak, baimenak eta irakasle-murrizketak estaltzeko kontratatuta.

Hori guztia kontuan hartuta, hona lortutako datuak:

Lanpostu huts okupatuak / plantilla-lanpostu okupatuak	2023	2024
Aldibaterakotasun-indizea, IIL	-	15,5
Aldibaterakotasun-indizea, TKAZL	24,4	12,3

IILen aldibaterakotasun-indizea ehuneko 15,5ekoa da. Ez dugu kalkulatu 2023. urteari zegokion indizea; izan ere, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoak irakasle elkartuei eta ordezkoei dagokienez eginiko aldaketen eraginez, konparazioa ez litzateke homogeneoa izanen.

TKAZLei dagokienez, indizea ehuneko 12,3koa da, 2023an baino 12 puntu txikiagoa, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzko uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legeak indarra hartzearen ondorioz NUPek hartutako neurriengatik, batik bat.

Langileekin zerikusia duten auzigaiak

2022ko irailean, NUPeko Gobernu Kontseiluak erabaki zuen enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko neurriak onestea. Neurri horien artean, Tuterako Campusean administrazio eta zerbitzuetako langileen 8 plaza betetzea erabaki zen.

2023ko otsailean, sindikatu batek erabaki horren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen Iruñeko administrazioarekiko auzien 2. epaitegian, eremu ez-euskaldunean euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratzearekin lotuta.

Horiek gorabehera, aipatu zortzi lanpostuak betetzeko hautaprozesuak amaitu ziren, eta plazak kasuan kasuko funtzionarioak sartzearekin bete ziren.

2024ko ekainean, aipatu epaitegiak epaia eman zuen errekurtsoa baietsirik eta NUPeko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren edukia deuseztaturik, aipatu zortzi lanpostuei dagokienez.

2025eko apirilean, errektoreak ebazpen bat eman zuen arestian aipatu epaia betearazteko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 51. artikuluan jasotzen den egintza administratiboen kontserbazioaren printzipioa aplikatuta, halako moduz non jarduketa administratiboak atzera eramanen ziren euskara merezimendu gisa baloratzeak ukitu gabeko egintza guztiak kontserbatuta. Halaber, ebazpenean ezartzen zen ezen, fede onez gainditzaileak mantentzeari buruzko jurisprudentziazko doktrina aplikatuta, bere garaian hautapen-prozesua gainditu eta kasuan kasuko plaza bete zuten izangaiek beren izendapena mantenduko zutela.

Horren ondorioz, beharrezkoa izan zen bi plaza gehigarri sortzea; horietatik bat beteta dago eta bestea hutsik, bete behar zuen pertsona izendapen libreko lanpostu baterako izendatu baitute.

Bestalde, NUPen balantzeak 750.899 euroko hornidura jasotzen du erakundearen aurka aurkeztutako errekurtsoengatiko auzigai ebatzigabeen ondorioz sor daitezkeen erantzukizunetarako.

Langileria-gastuaren egiaztapenak

2024an IILek eta TKAZLek jasotako nominaren ordainsari-kontzeptuen lagin bat aztertu dugu, 49,83 milioi euroko zenbatekoarekin. Zenbateko hori langileria-gastu osoaren ehuneko 57 da. Hona xehetasunak:

a) IIL: bost nomina-kontzeptu aztertu ditugu: oinarrizko soldata, destinoko osagarria, berariazko osagarria, hirurtekoak eta norberaren merezimenduak, zeinak jasota ageri baitira 1.400 pertsonak jasotako 42.252 erregistrotan, eta 32,49 milioiko zenbatekoa egiten baitute.

b) TKAZL: hamaika nomina-kontzeptu[5] aztertu ditugu, 30.573 erregistrori eta 558 pertsonari zegozkienak, eta guztira 17,34 milioi egiten zutenak.

Egiaztatu dugunez, oro har, aztertutako langileek egokiro jaso dituzte aztertutako ordainsari-kontzeptu guztiak, plantillan ezarritakoaren arabera. Hala ere, 18 desberdintasun antzeman ditugu, jarraian zehaztuak:

Ordainsari-kontzeptua	IILak		TKAZLak	
	Zuzen ordaindua	Oker ordaindua	Zuzen ordaindua	Oker ordaindua
Oinarrizko soldata	2	4	-	-
Abenduko apartekoaren oinarrizko soldata	-	-	-	1
Bateraezintasun-osagarria	-	-	1	-
Zuzendaritza-lanpostuko osagarria	-	-	2	-
Lanpostu-osagarria	-	-	5	-
Hirurtekoak	-	2	-	-
Bosturtekoak	-	-	-	1
Desberdintasunak, guztira	2	6	8	2

Antzemandako 18 desberdintasunetatik, hamar zuzen eginiko baina plantillarekin bat ez zetozen ordainketei zegozkien, plaza zehazterakoan zenbait ordainsari-kontzeptu oker islatu zirelako aplikazio informatikoan. Gainerako 8 desberdintasunei dagokienez, NUPek horien ordainketa erregularizatu du.

[5] Mailako soldata, bateraezintasun-osagarria, lanpostu-osagarria, maila-osagarria, arduraldi esklusiboa, zuzendaritza-lanpostuko osagarria, bosturtekoa, arriskugarritasun-osagarria, gradua eta ekaineko eta abenduko aparteko ordainsarien mailako soldatari buruzko zatia.

Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, hauek dira gure *gomendioak:*

• *Komunikazioa hobetu bedi IILak eta TKAZLak kudeatzeko atalaren eta nominen eta Gizarte Segurantzaren atalaren artean, plazetan gertatzen diren aldaketei dagokienez, eta aldaketa horiekin betiere plantilla eguneratzea.*

• *Aurrekontuan eranskin bat txerta bedi, berritik proposatzen diren postuak jasoko dituena, araudian ezarritakoaren arabera.*

• *Aldi baterako lan-kontratua duten irakaskuntza- eta ikerkuntza-langileek irakasle-plantillaren gainean araudiaren arabera osatu behar dituzten portzentajeak bete bitez.*

4.4. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

2024ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatiko gastu arruntak 17,12 milioikoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 13 egiten dute. Betetze-maila ehuneko 54koa izan zen, eta ekitaldiaren itxieran gastu horien ehuneko 90 zeuden ordainduta.

Betetze-mailaren ehunekoa txiki horren zergatia da kapitulu honetan finantzaketa atxikiko gastuak ere jasotzen direla, zeinen exekuzioa urte anitzetakoa izan ohi baita. Gastu mota hori kenduz gero, betetze-maila ehuneko 96koa da.

Honako hau da artikulu ekonomikoen araberako gastua eta haren eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

(milakotan)

Artikulua	Aitortutako betebehar garbiak (2023)	Aitortutako betebehar garbiak (2024)	2024/2023 aldea (%)
Errentamenduak	95	81	-14
Konponketa eta kontserbazioa	3.130	3.291	5
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	13.564	12.916	-5
Zerbitzua dela-eta emaniko kalte-ordaina	508	589	16
Argitalpenak editatu eta banatzea	24	26	12
Unibertsitateekiko akordioak, nazioarteko programak eta beste	257	213	-17
Guztira	17.577	17.117	-2

2023ko ekitaldiarekin alderatuta, gastu horiek ehuneko bi egin zuten gora; hots, 0,46 milioi. Zenbakitan, murrizketarik handiena material eta horniduren kontzeptuan ikusten da, eta gorakadarik handiena konponketa eta kontserbatzelanen kontzeptuan.

Kontratazio-espedienteen lagin baten berrikuspena

Kontratazio-espediente hauek fiskalizatu ditugu:

Kontratua	Mota	Adjudikazio-prozedura	Adjudikazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren baja (%)
Telefonia finko eta mugikorreko zerbitzuak	Zerbitzuak	Irekia	418.806	30
UNIVERSITAS XXI - ECONÓMICO aplikazioaren mantentze-lana eta kudeaketa-zerbitzua	Zerbitzuak	Lizitazio deialdirik gabeko prozedura negoziatua	608.073	-

Aipatutako espedienteen berrikusketa eginda, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, aplikatzekoa den araudiaren arabera izapidetu zirela. Halere, honako gabezia hauek adierazi behar ditugu:

• Telefonia finko eta mugikorreko zerbitzuaren kasuan, kuantifikatzen ahal ziren irizpideetako hiru baloratzeko formulak ez zekarren gehienezko puntuazioa eskaintza merkeenari ematea eta gainerakoak eskaintza horren alderantzizko proportzioan baloratzea.

Aipatu irizpideak honako hauek ziren:

Formula bidez kuantifikatzen ahal zen adjudikazio-irizpidea	Erreferentziazko zenbatekoa	Gehieneko puntuazioa
Telefonia finko eta mugikorreko zerbitzua ezartzeko eskaintza ekonomikoa	595.041	46
Telefonia finkoko balizko kostu gehigarriengatiko eskaintza ekonomikoa (terminal berriak erostea eta datu-trafikoaren bolumen-gaindikina)	Ez dago erreferentzia-baliorik	3,5
Telefonia mugikorreko balizko kostu gehigarriengatiko eskaintza ekonomikoa (datu-trafiko bolumen-gaindikina eta datu- eta ahots-bonuak)		3,5

Irizpide horiek baloratzeko formularen diseinua egokia da baldin eta aurkeztutako eskaintzak zero baino handiagoak badira; hala ere, kasu honetan, aurreko hiru irizpideetatik bitan erreferentziazko baliorik ez zegoenez eta lizitatzaileetako batek zero balioko eskaintza bat aurkeztu zuenez, inkongruentzia matematiko bat gertatu zen, konpondu zena apartatu horietako puntu guztiak lizitatzaile horri emanda. Beste lizitatzaileak, berriz, ez zuen punturik lortu.

Esleipen-prozeduraren emaitza honako hau izan zen:

	1. lizitatzailea	2. lizitatzailea (esleipen-hartzaile suertatua)
Balio-judizioaren araberako irizpide kualitatiboak (gehieneko puntuazioa: 45 puntu)	36,50	33,75
Formula bidez lortutako irizpide kuantitatiboak (gehieneko puntuazioa: 55 puntu)	42,55	55

Guztira	79,05	88,75

• Telefonia zerbitzuen kontratu-esleipeneko iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian jarri zen, baina kontratazio-mahaiaren aktak jaso gabe.

• UNIVERSITAS XXI – ECONÓMICO aplikazioaren mantentze-lanen eta telefonia finko eta mugikorreko zerbitzuaren esleipenak ez ziren Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu.

Gastu-lagin baten berrikuspena

Honako gastu hauek aztertu ditugu:

	Gastua (2023)	Gastua (2024)	Aldea (%) 2024/2023
Lorezaintza zerbitzua	205.378	253.344	23
Kirol zerbitzuak	470.768	574.766	22

Eginiko analisitik ondoriozttzen dugu gastu horiek baimenduta daudela, kontu-hartzailetzatik pasata, justifikatuta, behar bezala kontabilizatuta eta epe barruan ordainduta.

Egindako lanaren ondorioak ikusirik, hauexek dira gure gomendioak:

• *Pleguek erreferentziazko zenbateko bat jasotzen ez duten kasuetan, puntuazioak alderantzizko proportzio bidez ematerik ez dakarren formula bat aplikatzea.*

• *Kontratazio mahaiaren aktak eta eginiko lizitazioen esleipenak araudian ezarritakoaren arabera argitaratzea.*

4.5 Transferentzia arruntak

Transferentzia arruntak 3,12 milioi eurokoak izan dira, eta ehuneko 58ko betetze-maila izan dute. Kapitulu honetako gastua, bai eta 2023ko urtean izandakoarekiko alderaketa ere, honako hauek dira:

(milakotan)

Kontzeptua	Aitortutako betebehar garbiak 2023	Aitortutako betebehar garbiak 2024	Aldea (%) 2024/2023
Ikasleentzako bekak eta laguntzak	1.606	2.159	34
IIL eta TKAZLentzako bekak eta laguntzak	263	259	-2
Irabazi asmorik ez duten erakundeentzako transferentziak	485	682	41
Elkarteentzako eta bestelako ordezkaritzentzako laguntzak	17	16	-6
Guztira	2.371	3.116	31

Gastu hori ehuneko 31 (0,75 milioi) handitu da 2023arekin alderatuta, nagusiki 0,41 milioi handitu direlako Erasmus programako ikasleen mugikortasunera bideratutako funtsak.

Irabazi asmorik gabeko erakundeentzako transferentzien barruan, Unibertsitatea-Gizartea Fundazioari egindakoa ageri da, 0,55 milioikoa. Kopuru hori, emandako mandatuaren barruan, Hizkuntzen Goi-mailako Ikastegiaren jardueretara, Alumni Programara eta I+G Zentrora bideratzen da.

2024an baimendutako transferentzia arruntetatik berrikusi dugun lagina honako hau da:

Kontzeptua	Gastua (2023)	Gastua (2024)	Aldea (%) 2024/2023
Erasmus ikasleen mugikortasunerako laguntzak	202.703	525.492	159
Energia Berriztagarrien katedrako bekak	124.250	141.750	14

Egiaztatu da ezen, orokorrean, berrikusitako gastuak baimenduta, kontu-hartzailetzak onartuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daudela, eta haien onespen, justifikazio eta ordainketa kasuko araudian ezarritakoaren arabera egin dela.

4.6. Inbertsioak

2024ko inbertsioak 26,26 milioikoak izan dira —aitortutako betebehar guztien ehuneko 23—, eta betetze-mailak ehuneko 76ko portzentajea iritsi du. Kapitulu honetako gastuak ehuneko 34 igo dira 2023koen aldean (6,69 milioi gehiago). Arrazoi nagusia da Osasun Zientzien eraikin berriaren eraikuntza.

Honako hau da kontzeptu ekonomikoen araberako gastua eta haren eta 2023ko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

(milakotan)

Kontzeptua	Aitortutako betebehar garbiak 2023	Aitortutako betebehar garbiak 2024	Aldea (%) 2024/2023
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	9.979	17.486	75
Makinak, instalazioak eta tresnak	83	350	322
Altzariak eta tresneria	225	613	172
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	553	551	-
Berariazko programetarako inbertsio-funtsak	1.365	1.311	-4
Funts bibliografikoak	464	1.675	261
Ikerketa-proiektuetan eta -kontratuetan egindako inbertsioak	6.858	4.261	-38
Patenteak	35	13	-63
Aplikazio informatikoak	5	4	-20
Guztira	19.567	26.264	34

Bere izaeragatik, 2024ko gastuaren ehuneko 67 eraikin eta eraikuntzetara bideratu zen, nagusiki 15,86 milioiko inbertsioa egin delako aipatu eraikinean. Ehuneko 16, berriz, ikerketa-proiektu eta -kontratuetara bideratu zen; eta ehuneko sei, funts bibliografikoetara.

Osasun Zientzien Fakultatea hartuko duen eraikinaren eraikuntzari buruzko espedientea fiskalizatu dugu. Espedientearen garrantzia eta denbora-norainokoa

(2021-2025) aintzat hartuta, gure azterlana eta konklusioak txosten honen 5. gehigarrian xehakatu ditugu.

Horretaz gain, erosketa baterako kontratazio-espediente bat berrikusi dugu, hain zuzen 6G Channel Sounder and Sensing Platform (6GCSSP) sistema bat, Beyond 5G eta 6G komunikazioetarakoa eta komunikazio-eta detekzio-gaitasun bateratuetarakoa, erostekoa, zeinak xedetzat ikerketa-proiektu bat baitauka, honako jakingarri hauek dituena:

Kontratua	Mota	Esleipen-prozedura	Esleipenaren zenbatekoa	Esleipenaren baja (%)
6G Channel sistema	Hornidura	Irekia	1.779.394	0,7

Aipatutako espedientearen berrikusketa eginda, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, aplikatzekoa den araudiaren arabera izapidetu zela. Halere, honako alderdi hauek adierazi behar ditugu:

• Telekomunikazioen eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzak ikerketa-proiektu bati emandako dirulaguntza baten ondorioz erosi zen ekipo hori. Prozedura ireki baten bidez izapidetu zen erosketa, eta enpresa bakarra aurkeztu zen.

Horri dagokionez, baieztatu digute lizitaziora aurkeztu zen enpresa dela kasuko ikerketa egin ahal izateko beharrezkoak diren zehaztapen teknikoak betetzen dituen ekoizle bakarra.

Inguruabar hori kontratazio-espedientean egiaztatuz gero, erosketa prozedura negoziatu baten bidez izapidetzen ahalko zen, lizitaziorako deialdirik egin gabe, eta horrek administrazio-izapideak arintzea ahalbidetuko zukeen.

• Esleipenaren iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian jarri zen, baina kontratazio-mahaiaren aktak jaso gabe.

• Esleipenaren iragarkia araudian ezarritako epearekiko 225 eguneko atzerapenarekin argitaratu zen Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean.

Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, hauek dira gure *gomendioak:*

• *Lizitazio bakoitzaren ezaugarrietara hobekien egokitzen diren kontratazio-prozedurak erabil bitez, horien administrazio-izapidetzea arintzeko xedez.*

• *Araudian ezarritako epeak errespeta bitez egiten diren lizitazio- eta esleipen-prozesuetan.*

• *Egiten diren lizitazioetan, kontratazio-mahaiaren aktak araudian ezarritakoaren arabera argitara bitez.*

4.7 Ikerketa-kontratuen eta -proiektuen kudeaketa

NUPen Europaren, Estatuaren eta Nafarroako Gobernuaren finantzaketa duten ikerketa-proiektuak egiten dira. Gainera, NUPek zilegi du kontratuak egitea pertsona edo entitateekin, lan zientifiko, tekniko edo artistikoak egiteko, edo berariazko prestakuntza-jarduerak egiteko, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoaren 60. artikuluaren eta Unibertsitateko Estatutuen 183. artikuluen babesean (Ikerketen Emaitzak Transferitzeko Bulegoaren kontratuak). Kontratu horiek nahitaez bete behar dute kontratazio-arautegia, Nafarroako Unibertsitate Publikoan izaera zientifiko, tekniko edo artistikoa daukaten lanak egiteko eta berezitasuneko ikasketak edo prestakuntza-jarduera berariazkoak garatzekoa, Gobernu Kontseiluak 2008ko urtarrilaren 29ko erabakiaren bidez onetsia.

2017an zeharkako kostuei buruzko bi erabaki onetsi ziren: lehenengoaren bidez xedatu zen Ikerketen Emaitzak Transferitzeko Bulegoaren kontratuetan zeharkako kostuek beti eginen zutela kostu zuzenen ehuneko 17; bigarrenaren bidez, zeharkako kostuen banaketa-sistema ezarri zen, bai Ikerketen Emaitzak Transferitzeko Bulegoaren kontratuetarako bai ikerketa-proiektuetarako[6].

2024an, ikerketa-proiektu eta -kontratuak egitetik heldu diren gastuak 8,70 milioikoak izan dira, jarraian zehaztu bezala:

(milakotan)

Ikerketa-proiektu eta -kontratuak	Zenbatekoa	%
Langileria-gastuak	5.683	65
Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2.264	26
Transferentzia arruntak	152	2
Inbertsio errealak	598	7
Gastuak, guztira	8.697	100

Lagin bat berrikusi dugu, honakoek osatua: Nafarroako Gobernuak finantzatutako ikerketa-proiektu bat, enpresari I+G transferitzeko kontratu bat (Ikerketen Emaitzak Transferitzeko Bulegoa) eta Europar Batasunak finantzatutako proiektu bat. Hiru kasuetan, proiektuaren garapena 2024 baino lehenago hasi zen; hona xehetasunak:

	Gastuak				Diru-sarrerak		
	Langileria	Material suntsikorra / zerbitzuak	Inbertsioak	Gastuak, guztira	Funts erabilgarriak	Zeharkako kostuak	Diru-sarrerak, guztira
NAITEST-NAITEC proiektua, mugikortasun autonomo eta konektatuko osagai eta sistemetarako baliozkotze eta test zentroa							
2022	-	29.985	-	29.985	29.985	3.852	33.837
2023	79.918	29.164	-	109.082	102.046	19.597	121.643
2024	65.301	14.893	-	80.194	87.230	17.074	104.259
Guztira	145.219	74.042	-	219.261	219.261	40.523	259.739
IETB kontratua: Ibilgailu elektrikoetarako kargagailu ultralasterretarako konbertsio-sistemak							

[6]Ikerketa-proiektuetan, zeharkako kostuen zenbatekoa proiektua arautzen duen deialdian ezartzen da.

2022	-	-	-	-	42.735	7.265	50.000
2023	19.859	-	-	-	42.735	7.265	50.000
2024	65.611	-	-	-	-	-	-
Guztira	85.470	-	-	-	85.470	14.530	100.000

“Multimodal Environmental Exploration Systems Novel Technologies” proiektua							
2021	7.315	681	-	7.996	140.894	16.505	157.399
2022	44.635	14.915	-	59.550	29.101	3.409	32.510
2023	44.813	1.755	1.986	48.554	-	-	-
2024	44.671	5.446	-	50.118	3.466	406	3.872
Guztira	141.434	22.798	1.986	166.218	173.461	20.320	193.781

Kanpoko finantzaketa NUPek jasotzen du; horretatik, ehuneko 17 atxikitzen du, zeharkako kostuen kontzeptuan, Ikerketen Emaitzak Transferitzeko Bulegoaren kontratuen kasuan; eta gainerakoa ikertzaileek kasuko kontratua gauzatzeko funts erabilgarriak dira.

Egindako lanean oinarrituta ondorioztatu dugu oro har gastuen eta diru-sarreren kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketa egokia dela eta langile-hautaketa araudiaren araberakoa dela, nahiz eta adierazi behar dugun aztertutako kontratuak ez zuela jasotzen aurrekontu xehakatu baterako proposamenik, aipatu kontratazio-erregelamenduan ezarritakoaren kontra. Horri dagokionez, NUP erregelamendu hori aldatzeko prozesuan dago eta aldaketa horrek eskakizun horren berrikuspena ere jasotzen du.

Gure konklusioak aintzat hartuta, gomendatzen dugu prozedura erraztuaz bestelako bat duten IETBaren (Ikerketen Emaitzak Transferitzeko Bulegoaren) kontratuen espedientean aurrekontu xehakatu bat jasotzea, lagungarri izanen dena kontratu horien gardentasun eta kontrolerako, aipatu erregelamendua aldatzen ez den bitartean.

4.8 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tasak, prezio publikoak eta aitortutako bestelako diru-sarrera garbiak 17,95 milioikoak izan dira 2024. urtean; eta diru-bilketaren portzentajea, ehuneko 98koa. Ekitaldiko eskubide guztien ehuneko 13 egiten dute, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

(milakotan)

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	Aitortutako eskubide garbiak, 2023	Aitortutako eskubide garbiak, 2024	Aldea (%) 2024/2023
Tasak	1.373	1.419	3
Prezio publikoak	14.039	12.795	-9
Zerbitzu-emateagatiko beste diru-sarrera batzuk	3.261	3.511	8
Ondasunak saltzea	21	27	29
Itzulketak	30	30	-
Beste diru-sarrera batzuk	166	168	1
Guztira	18.891	17.951	-5

Diru-sarrera horiek ehuneko bost murriztu dira, hau da, 0,94 milioi, nagusiki prezio publikoen jaitsieragatik; zehazki, matrikulen beken bidez lortutakoen (0,71 milioi) eta ikasle-matrikulen ordainketarako salbuespenengatiko (0,56 milioi) jaitsieragatik.

2024ko prezio publikoak 12,80 milioikoak izan dira, eta kapituluko diru-sarrera guztien ehuneko 71 egiten dute. Hona hemen xehetasunak:

(milakotan)

Prezio publikoak 2024	Zenbatekoa
Titulazio ofizialak	12.162
Arautu gabeko irakaskuntzak	61
Kirol-jarduerak	308
Lokal eta instalazioen erabilera	232
Beste prezio publiko batzuk	32
Prezio publikoak, guztira	12.795

Titulazio ofizialen barruan, zikloak, graduak, doktoretzak eta master ikasketak jasotzen dira; arautu gabeko irakaskuntzetan, berriz, funtsean titulu berekiak, Esperientziaren Gela eta Hizkuntzen Goi-mailako Ikastegia sartzen dira.

Tasa eta prezio publikoei dagokienez, honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

• NUPek aplikatzen dituen prezio publikoen urteko kopurua honela finkatzen da:

a) Ikasketa ofizialen kasuan, Nafarroako Gobernuak ezartzen du. Zehazki, 2024/2025 ikasturterako, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren 88E/2024 Foru Aginduaren bitartez.

b) Arautu gabeko irakaskuntzen eta beste prezio publiko batzuen kasuan, arau orokor gisa Gizarte Kontseiluaren erabakiz ezartzen dira. Horrela, ekainean, Gizarte Kontseiluaren 2023ko ekaineko erabakiz, prezio publikoak onetsi ziren ikasketa berekietarako, A3U programako kuotetarako[7], kirol-jarduera eta -instalazioetarako,"NireIkasgelategia" zerbitzurako[8] eta Hizkuntzen Goi Mailako Ikastegirako.

Gradu eta master ikasketen 2024/2025 ikasturterako matrikula-prezioak[9] honakoak izan ziren:

	Giza eta Gizarte Zientziak	Zientziak, ingeniaritzak eta osasun zientziak	Lanbide erregulatuetarako gaikuntza ematen duten masterrak	Lanbide erregulatuetarako gaikuntzarik ematen ez duten masterrak
1. matrikula	15,10 €/kreditua	21,38 €/kreditua	1. esperimentaltasun maila (Abokatutzarako Sarbidea, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza): 17,95 €/kreditua 2. esperimentaltasun maila (ingeniaritzak eta psikologia): 21,38 €/kreditua	28,35 €/kreditua
2. matrikula	32,50 €/kreditua	46,10 €/kreditua	34 €/kreditua	73,65 €/kreditua
3. matrikula	70,50 €/kreditua	99,95 €/kreditua	73,65 €/kreditua	
4. matrikula eta ondorengoak	97,65 €/kreditua	138,25 €/kreditua	102 €/kreditua	

Matrikulan, prezio akademikoez gain, prezio administratiboak ordaindu beharra dago: 41,15 euro, administrazio-kudeaketako gastuengatik, eta 31,25 euro, lehenbiziko urtean espedientea irekitzeagatik. Zenbateko horiek ez dira aldatu 2022/2023 ikasturtetik.

• Matrikulen kontabilitate- eta aurrekontu-erregistratzea kutxa-irizpidearen arabera egiten da, beste diru-sarrera partida batzuetan bezalaxe. Irizpide hori erabiltzeak murriztu egiten ditu eskubide kontabilizatuak eta, beraz, kobrakizun

[7] Nafarroako Unibertsitate Publikoko lagunen eta antzinako ikasleen Alumni elkartea.
[8] Nafarroako Unibertsitate Publikoaren plataforma birtuala.
[9] Matrikularen zenbatekoa kalkulatzeko, ikasgaien kredituak bider kreditu bakoitzaren prezioa eragiketa egin beharra dago.

daudenak, eta, horrekin, diruzaintza-gerakin atxikigabea. Ezin izan dugu kalkulatu, ordea, zein zenbatekoko murrizketa den.

• Oroitidazkian jasotako informazioaren arabera, matrikula-kontzeptuan 2024ko abenduaren 31n kobrakizun zeuden eskubideen zenbatekoa honako hau da:

Matrikulengatik kobratzeko gelditu diren eskubideak	2019-20 ikasturtea	2020-21 ikasturtea	2021-22 ikasturtea	2022-23 ikasturtea	2023-24 ikasturtea	Guztira
Graduko matrikulak	72.867	76.304	99.490	105.047	133.405	487.113
Masterreko matrikulak	11.376	13.994	24.219	12.556	25.229	87.374
Doktoretzako matrikulak	-	1.510	2.481	54	2.265	6.310
Guztizko zenbatekoa	84.243	91.807	126.190	117.657	160.899	580.797
Zordun kopurua	191	226	336	300	400	1.453

580.797 euroko matrikula-zenbatekoa zegoen kobrakizun, eta 1.453 ziren horren zordunak. Ehuneko 84 graduko matrikuletatik dator eta ehuneko 15 masterretako matrikuletatik.

Diru-sarreren lagin baten berrikuspena

2024an aitorturiko diru-sarrera hauek berrikusi ditugu:

Kontzeptua	Diru-sarrerak (2023)	Diru-sarrerak (2024)	Aldea (%) 2024/2023
Matrikulen ordainketarako salbuespenak	1.668.586	1.106.977	-34
Matrikuletarako bekak	1.775.053	1.065.999	-40
Iruñeko campuseko kirol izen-emateak	213.147	289.252	36

Egindako berrikuspenetik ondoriozta dezakegu ezen, orokorrean, likidazio- eta dirubilketa-prozedurak haien araubidea betez egin zirela; nolanahi ere, aipatu beharrekoa da ezen matrikuletarako bekengatiko eta Iruñeko campuseko kirol izen-emateengatiko diru-sarreren kasuan kutxa-irizpidea dela, eta ez sortzapen-irizpidea, diru-sarrerak kontabilizatzeko erabilitakoa.

Ateratako ondorioak aintzat hartuta, gomendatzen dugu diru-sarrerak sortzapen-irizpidearen arabera kontabiliza daitezela.

4.9 Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak

2024an, transferentzia arrunt eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak 101,97 eta 18,69 milioikoak izan dira, hurrenez hurren. Diru-sarrera horiek NUPen finantzaketa-iturri nagusia dira, eta guztizko diru-sarreren ehuneko 87 egiten dute. Hurrengo taulan ageri dira xehetasunak (euroak, milakotan).

Transferentzia arruntak	Aitortutako eskubide garbiak, 2023	Aitortutako eskubide garbiak, 2024	Aldea (%) 2024/2023
Estatuko Administrazio Orokorra	9.340	6.709	-28
Administrazio zentraleko beste erakunde batzuk	-24	-	-
Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa	84.925	90.263	6
Toki-korporazioak	22	3	-88
Enpresa pribatuak	484	573	19
Familiak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak	1.099	374	-66

Kanpokoak (Europar Batasunekoak eta hortik kanpokoak)	1.128	4.050	259
Transferentzia arruntak, guztira	96.973	101.972	5
Estatuko administrazioa.	1.0(	-:	-1(
Nafarroako Gobernua	10.074	18.723	86
Kapital-transferentziak, guztira	11.074	18.692	69

2023koekin alderatuta, transferentzia arruntek bost milioi egin dute gora. Horren arrazoi nagusia izan da Nafarroako Gobernuarekiko urte anitzeko finantzaketa-hitzarmenetik heldutako diru-sarreren gorakada. Kapital-transferentziek ehuneko 69 egin dute gora, Nafarroako Gobernuarengandik 8,65 milioi jasotzeagatik nagusiki Osasun Zientzien Fakultatearen eraikinaren eraikuntza finantzatzeko.

NUPen eta Nafarroako Gobernuaren arteko finantzaketa-hitzarmena

2024an, Nafarroako Gobernuarekiko finantzaketa-hitzarmenetik datozen diru-sarrerak 86,53 milioikoak izan dira, eta ekitaldiko diru-sarrera guztien ehuneko 62 egiten dute.

NUPek 2020-2024 aldian jasotako eta hiru aurrekontu-partidatan erregistraturiko diru-sarrerek bilakaera hau izan zuten:

(milakotan)

Finantzaketa	2020	2021	2022	2023	2024	Ald. (%) 2024/2020	Ald. (%) 2024/2023
Egituraren eta jardueraren finantzaketa	66.284	70.381	74.965	79.255	84.199	27	6
Hobekuntzak (helburukako finantzaketa)	1.369	1.369	1.400	1.400	1.356	-1	-3
Inbertsio espezifikoak	1.011	600	1.000	1.000	978	-3	-2
Finantzaketarako hitzarmena, guztira	68.664	72.350	77.365	81.655	86.533	26	6

Finantzaketak ehuneko 26ko igoera izan du 2020-2024 epean. 2023 urtearekiko igoera-portzentaje hori ehuneko seikoa izan da 2024an. Bi hitzarmen desberdinek ematen diote oinarri diru-sarrera horiek jasotzeari: 2018-2020 eperako ezarritakoak (2021era luzatu zen) eta 2022-2024 epealdirakoak.

4.10. Epe laburreko zordunak eta hartzekodunak

Epe laburreko zordunak

2024ko abenduaren 31ko zordun-saldoa 1,17 milioikoa zen (barne harturik Matrikulengatik kobratzeko gelditu diren eskubideak, lehenago aipatuak), eta honela sailkatzen da:

(milakotan)

Zordunak	2023/12/31	2024/12/31	Aldea (%) 2024/2023
Aurrekontu-zordunak	5.364	821	-85
Aurrekontukoak ez diren zordunak	137	229	67
Administrazio publikoak	519	431	-17
Hornidurak	(361)	(316)	-12
Zordunak, guztira	5.659	1.166	-79

Zordunen ehuneko 70 aurrekontukoak dira (ehuneko 72, 2024ko aurrekontukoak), eta ehuneko 37 dira administrazio publikoekiko zorretakoak.

2023koarekin alderatuta, saldoa ehuneko 79 murriztu zen (4,49 milioi), aurrekontuko zordunak 4,54 milioi jaitsi zirelako. 2023an, aurrekontuko zordunen zenbatekoak barne hartzen zituen Nafarroako Gobernutik jaso gabe zeuden 3,34 milioi, Osasun Zientzien Fakultatearen eraikinaren eraikuntza finantzatzeko, eta beste milioi bat, ikerketa-proiektu batekoa.

Epe laburreko hartzekodunak

2024ko abenduaren 31n, hartzekodunen saldoa 10,18 milioikoa zen, eta honako hauei zegokien:

(milakotan)

Hartzekodunak	2023/12/31	2024/12/31	Aldea (%) 2024/2023
Aurrekontuko hartzekodunak	4.689	4.904	5
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	594	736	24
Administrazio publikoak	3.797	4.336	14
Jasotako epe laburreko fidantza eta gordailuak	126	203	61
Hartzekodunak, guztira	9.206	10.179	11

Hartzekodunen ehuneko 48 aurrekontukoak dira (ehuneko 99, 2024ko aurrekontukoak), eta ehuneko 43 dira administrazio publikoekiko zorretakoak.

2023rekin alderatuta, saldoa ehuneko 11 igo zen (0,97 milioi), administrazio publikoen zorren gorakadarengatik (0,54 milioi) eta aurrekontu-zordunen zorren gorakadarengatik (0,22 milioi).

4.11 Unibertsitate-Gizarte Fundazioa

Unibertsitate-Gizarte Fundazioa Gobernu Batzarraren 1996ko abenduaren 20ko Erabaki bidez eratu zen, elkarrizketa sustatzeko eta NUPen eta nafar gizartearen arteko lankidetza bideratzeko.

Enpresa pribatu batek egin zuen fundazioaren 2024ko urteko kontuei buruzko finantza-auditoretza, eta aldeko iritzia eman zuen. Ez da erabakitako prozeduren araberako betetzeari buruzko auditoretzarik egin.

2024an, fundazioak honako magnitude muntadun hauek izan zituen bere jarduera ekonomiko-finantzarioan (aurreko ekitaldikoekin ere alderatu dira):

(euroak, milakotan, salbu eta langileen kopurua).

	2023/12/31n	2024/12/31 n
Funts berekiak	830	857
Pasibo korrontea	1.203	874
Aktibo ez-korrontea	76	79
Diruzaintza	510	227
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	5.101	5.013
Unibertsitate-enkarguaren aplikaziotik heldu diren diru-sarrerak	694	829
Langileria-gastuak	2.027	2.067
Ekitaldiko emaitza	-50	27

Batez besteko enplegatu-kopurua	39,50	40,09

Fundazioak bere alor desberdinetan izandako gastuen eta diru-sarreren xehakapena honako hau da:

	Diru-sarrerak	Gastuak	IIL gastua NUP	Diru-sarrera aurreko emaitza enkargua	Enkarguaren diru-sarrera (barne hartzen du NUPeko IIL gastua)	Ekitaldiko emaitza
Prestakuntza	1.049.347	909.284	276.099	-136.036	828.690	26.748
Praktikak	2.224.199	2.363.716		-139.517		
Enplegua	311.887	304.829		7.058		
Hizkuntzak	587.164	843.361	1.068	-257.265		
Zuzendaritza eta euskarria	32.238	308.420		-276.182		
Guztira	4.204.835	4.729.610	277.167	-801.942		

Unibertsitateko errektorearen abenduaren 19ko 2643/2023 Ebazpenaren bidez, fundazioari honako jarduera hauek egiteko mandatua eman zitzaion 2024rako:

• Etengabeko prestakuntzako jarduera: irakaskuntza berekiak, eskaintzako prestakuntza etengabea, eskaerako prestakuntza etengabea edo in Company prestakuntza, Esperientziaren Ikasgela, mikrokredentzial izaerako irakaskuntza berekiak eta beste prestakuntza-programa batzuk, NUPek mentore, ordezkari eta tutoreentzako prestakuntzarakotzat jotzen dituenak.

• Praktika nazional zein nazioartekoen programaren kudeaketa: graduko eta masterreko curriculum-praktikak, curriculumez kanpoko praktikak eta irakaskuntza berekietako praktikak.

• Hizkuntzen Goi-mailako Ikastegiaren kudeaketa, hizkuntza-ikastaro orokor nahiz bereziak antolatzea, azterketa ofizialen, mailakatze-proben eta itzulpenzerbitzuen kudeaketa.

• Loturagintza-plana: NUPi sostengu ematea plan honen eta A3U Programaren (NUPeko lagun eta ikasle ohiena) kudeaketan

• Enplegua eta Ekintzailetza Hobetzeko Plan Integrala.

• Lan-bitartekaritza eta Behatokia.

• Urtean zehar NUPen interesekoa izan daitekeen jarduera oro.

Txosten honen III. eranskinean, arlo horietako bakoitzean egindako jardueren adierazle batzuk aipatzen ditugu.

Ateratako ondorioak aintzat hartuta, gomendatzen dugu Unibertsitate - Gizarte Fundazioari betetzeari buruzko auditoretza egitearen komenigarritasuna aztertzea.

5. gehigarria. Osasun Zientzien Fakultatea hartuko duen eraikinaren eraikuntza

Osasun Zientzien Fakultatea hartuko duen eraikinaren eraikuntzari buruzko espedientea aztertu dugu. Txosten hau idatzi den egunean amaitu gabe dago. Ondoren, gertakari aipagarrienak xehatuko ditugu, ordena kronologikoan:

• Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko Unibertsitate zuzendari nagusiaren abenduaren 24ko 6E/2019 Ebazpenaren bidez onetsi zen epaimahaiaren esku-hartzearekin proiektu-lehiaketa egiteko espedientea, NUPeko Osasun Zientzien Fakultatea hartuko zuen eraikinaren eraikuntza-proiektua idazteko xedez.

Ebazpen horretan zehazten zenez, lehiaketaren irabazlearekin prozedura negoziatu bidezko kontratu bat sinatuko zen, lizitaziorako deialdirik egin gabe. Kontratuaren xedea aipatu eraikuntza-proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza izanen zen.

Lehiaketara 26 proposamen aurkeztu ziren, eta guztiak aztertu ondoren, horietatik bederatzi baztertu ziren. Ideien lehiaketa 93E/2020 Ebazpenaren bidez ebatzi zen, urte horretako irailean.

• Azaroko 115E/2020 Ebazpenaren bidez, aipatu eraikinaren proiektuaren idazketarako eta obren zuzendaritza fakultatiborako kontratazioaren espedientea onetsi zen, guztira 695.500 euro eginen zuena.

• 2021eko apirilean, Gobernuaren erabaki bidez onetsi zen NUPen eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren arteko lankidetza-hitzarmen berezia, 2024ko abenduaren 31ra bitarteko iraupena eta 2021-2024 aldirako 34,97 milioiko guztiko gastua izanen zuena, Osasun Zientzien Fakultate berria eraiki eta abian jartzeko eta, hala, Medikuntza Graduaren ezarpen osoa bermatzeko.

• 2021eko uztailean, NUPek iragarri zuen aipatu eraikuntzaren exekuzioa kudeatzeko aholkularitza teknikoa lizitatzeko asmoa.

2021eko urrian, NUPeko errektorearen 2183/2021 Ebazpenaren bidez, 131.935 eurogatik esleitu zien eraikuntzaren exekuziorako aholkularitza teknikoko zerbitzua Nafarroako Lurzorua eta Etxebizitzak SA (NASUVINSA) (% 80) eta Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala Fundazioak (CENER) (gainerako % 20a) enpresei.

Hilabete horretan bertan, NUPeko errektorearen 2219/2021 Ebazpenaren bidez obra-proiektuaren jabetzaren doako lagapena onetsi zen.

• 2022ko urtarrilean, NUPek eraikinaren obra egiteko lizitazioa argitaratu zuen. Lizitazioaren zenbatekoa 30 milioikoa zen. Lizitazioa eman gabe geratu zen.

2022ko martxoan, proiektua idatzi zuen taldeari eta kontratatutako aholkulari teknikoei dei egin zien emaitza horren arrazoiak azter zitzaten eta txosten bat egiteko eskatu zien. Prestatutako txostenak ondorioztatzen zuenez, ezarritako lizitazioaren zenbatekoak baldintzatu zuen eskaintzarik aurkeztu ez izana; izan ere, enpresek arrisku handia hartu behar zuten beren gain, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazkarengatik energiaren eta lehengaien prezioen gorabeheretatik eratorritako merkatuko ziurgabetasuna dela-eta.

Halaber, NUPek bilerak egin zituen sektoreko enpresekin eta beste txosten bat prestatu zuen, zeinetan ondorioztatzen baitzen lizitazioan merkatuko prezioa baino balio txikiago jasotzen zela, ehuneko 20tik ehuneko 30era arteko tartean.

Aurreko guztian kontuan hartuta, aipatu finantzaketa-hitzarmenaren jarraipen batzordeak egin beharreko azterlana eginda, tresna hori Gobernuaren Erabaki bidez aldatu zen ekainaren 2022an. Hala, gastua 37,97 milioira igo zen eta eraikuntza amaitu eta ekipamendua erosteko epea 2025eko abenduaren 31ra luzatu zen.

• Aldaketa hori kontuan hartuta, proiektuaren aurrekontua 33 milioitan zenbatetsi zen eta hala argitaratu zen lizitazioa 2022ko abuztuan, eskaintzak aurkezteko 69 eguneko epearekin.

Epe hori amaiturik, zazpi eskaintza jaso ziren. Horietatik bost ziren adjudikaziodun izatekotan aldi baterako enpresa-elkarte bat osatuko zutela zioten enpresetatik zetozen. Aldi baterako enpresa-elkarte bat osatzea aurreikusten zuen enpresa baten eskaintzaren dokumentazioan adierazpen bat jasotzen zen, zeinaren bidez jakinarazten baitzen 2022ko uztailaren 5ean Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ebazpen bat eman zuela enpresa horri zehapen bat ezarriz Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legea urratuko zukeen ustezko kolusiozko jokabide batengatik. Halaber, adierazten zen ebazpen hori ez zela irmoa eta horregatik ez zegoela erregistro ofizialetan inskribatuta.

Kontratazio-mahaiak egiaztatu zuenez, enpresa horretaz gain aurkeztutako enpresetatik beste lau ere ebazpen horren eraginpean zeuden. Hori dela-eta, enpresa horiek onartutzat jo aurretik kontsulta egin zion Nafarroako Kontratazio Publikorako Batzordeari, enpresa horietakoren batek kontratatzeko debekurik ote zuen jakiteko.

Kontratazio Batzordeak jakinarazi zuen ezen, inongo erregistro ofizialetan ez zegoenez jasota kontratatzeko debekuaren iraupena, hasiera-data, ez eta norainokoa ere, zehapenak ez zirela berehala betetzekoak.

Halaber, Estatuko Lizitatzaileen Erregistro Ofizialari kontsulta egin eta egiaztatu ondoren enpresa horiek ez zutela kontratatzeko debekurik indarrean, kontratazio-mahaiak guztiak onartzea erabaki zuen.

• Hona hemen balio-judizio baten baitan dauden esleipen-irizpideak eta eskaintzengatik lortutako puntuazioak:

	Balio-judizioen mendeko irizpideak (gutxieneko puntuazioa: 25 puntu)	Formula matematikoen mendeko irizpideak		Guztira
		Proposamen ekonomikoa	Beste irizpide batzuk	
Gehieneko puntuazioa	50	22	28	100
Esleipendun izan den ABEEaren eskaintza	38	18,04	28	84,04
2. eskaintza	22,5	*Baztertua, gutxieneko puntuazio teknikoa ez lortzeagatik*		
3. eskaintza	39,5	16,50	28	84
4. eskaintza	25	2,31	28	55,31
5. eskaintza	27	0,18	28	55,18
6. eskaintza	17,5	*Baztertua, gutxieneko puntuazio teknikoa ez lortzeagatik*		
7. eskaintza	32,5	22	28	82,5

• 2023ko martxoan, NUPeko errektorearen 255/2023 Ebazpenaren bidez kontratua esleitu zitzaion aldi baterako enpresa-elkarte batek aurkeztutako eskaintzari, zeinak puntuaziorik handiena lortu baitzuen, 30,29 milioiko guztizko zenbatekoagatik. Ebazpen hori Kontratazio Atarian argitaratu zen eta bertan kontratazio-mahaiaren aktetan islatutako zenbait alderdi jasotzen badira ere, akta horiek ez ziren argitaratu.

• Kontratua 2023ko otsailean formalizatu zen eta zuinketa-akta urte bereko apirilean sinatu zen. Une horretan hasi zen zenbatzen aurreikusitako 28 hilabeteko exekuzio-epea, zeina 2025eko abuztuaren 3an amaitzen baitzen.

• Eraikinaren eraikuntza-proiektuaren helburuetako bat balantze energetiko positiboa lortzea zen. Horretarako, beharrezkoa zen panel fotovoltaikoak jartzea eraikin berriari erantsita egon behar zuen Osasun Zientzien eraikin zaharraren estalkian.

Eraikin zaharrean panelak jarri aurretik, beharrezko azterlanak egin ondoren, erabaki zen beharrezkoa zela estalkia berritzea, erretenen korrosioagatik eta materialaren isurkien malda eskasagatiko estankotasun-arazoak baitzituen. Arrazoi horiek tarteko, 2025eko martxoan erabaki zen, errektorearen kasuko ebazpenaren bidez, estalkia berritzeko enkargua egitea.

Proiektua idazteko eta obren zuzendaritzarako kontratuan egin beharreko aldaketa egin ondoren, 2025eko maiatzaren 30ean Azpiegitura eta Zerbitzu Orokorren Zerbitzuak txostena eman zuen, obraren kontratuan 0,6 milioiko aldaketa egiteko eskatuz.

2025eko ekainaren 12an kontratua aldatzeko proposamena egin zen, aurreko txostenean jasotakoekin bat. Kontu-hartzailetza eta Auditoretza Zerbitzuak proposamen horri buruzko fiskalizazio-iritzi negatiboa eman zuen, euskarri zuen dokumentazioan antzemandako akats formalak zirela-eta. Akats horiek konpondu ziren eta proposamen berriak aldeko fiskalizazio-iritzia jaso zuen.

Aldi baterako enpresa-elkarteak kontratu aldatua sinatu zuen 2025eko uztailaren amaieran eta errektoreak 2025eko abuztuaren 1ean. Kontratuaren aldaketa uztailaren 15ean argitaratu zen Kontratazio Atarian eta exekuzio-epea 15 astez luzatu zen; beraz, aurreikusitako amaiera-data urte horretako azaroaren 15 zen.

• Egiaztatu dugunez, kontratuaren exekuzioaren jarraipen egokia egin da eta behar bezala egiaztatu da aldi baterako enpresa-elkarte adjudikazio-hartzailearen eskaintzan zehaztutako irizpideak.

• Hona hemen 2022-2025 aldian betetako gastua:

	2022	2023	2024	2025	Guztira
ABEEa	-	8.105.151	15.864.974	7.191.044	31.161.169
Obraren proiektua idaztea eta obraren zuzendaritza	226.527	220.864	337.785	180.698	965.874
Nasuvinsa	13.721	24.276	29.076	-	67.073
CENER	3.430	-	13.338	-	16.768
Beste batzuk	2.399	-	-	13.641	16.040
Guztira	246.077	8.350.291	16.245.173	7.385.383	32.226.925

Txosten hau egiteko unean, guztizko gastua 32,23 milioikoa da, baina obrak jasotzeke daudenez, aipatu zenbatekoa handiagoa izanen da.

Lortutako konklusioak aintzat hartuta, gomendatzen dugu kontratazio-mahaiaren aktak Kontratazio Atarian argitaratzea.

6. gehigarria. Informazioaren teknologien gobernantzari buruzko iritzia

Informazioaren teknologien gobernantzaren auditoretza egin dugu eta bertan berrikusi ditugu NUPek dauzkan kontrolak 5331 kanpo-kontroleko organoen fiskalizazio gidaliburu praktikoan (GPF-OCEX 5331) identifikatutako hamar arriskurekin lotuta. Hauxe da gure auditoretzaren emaitza arrisku bakoitzerako:

Arriskua	Oharrak	Ezarritako kontrolaren kalifikazioa
Egitura informatiko zatikatuak eta bikoiztuak	Kontrol egokiak	Eraginkorra
ITen ekarpen baxua entitatearen helburuetarako	Kontrol egokiak	Eraginkorra
Sistema informatiko ez-eraginkorrak edo erabilgaitzak	Kontrol egokiak	Eraginkorra
ITetako baliabide ekonomikoen eta giza baliabideen kudeaketa ez-eraginkorra	Kontrol egokiak	Eraginkorra
ITetako gastu ezezaguna, gehiegi, zerbait edo ez da nahikoa	Kontrol egokiak	Eraginkorra
ITen erabilera txarra entitatearen zerbitzuak emateko	Kontrol egokiak	Eraginkorra
Hirugarrenekiko mendekotasuna	Kontrol egokiak	Eraginkorra
ITetako proiektuak ez datoz bat entitatearen helburuekin	Proiektuak kudeatzeko eta horien jarraipena egiteko tresnarik eza	Eraginkorra gomendioekin
Baliabideak, pertsonak, trebetasunak eta gaitasunak	Profil informatikoko lanpostu hutsak egotea NUPen beharrizanak gorabehera	Eraginkorra gomendioekin
Zibersegurtasun- eta pribatutasun-arriskuen eraginpean egotea, hala nola datu-galeraren eta segurtasun-urraketen eraginpean	Arazoak eta zibersegurtasun- eta pribatutasun-arrakalak izateko arriskua saihesteko ekintzen falta, zenbait langilek ikerketan erabiltzen dituzten ekipoetan softwarea instalatzeko autonomia dutelako.	Eraginkorra gomendioekin

Gure konklusioak ikusirik, honako hau gomendatzen dugu:

• *Proiektuak kudeatzeko tresna bat ezar bedi, proiektuen alderdi guztien jarraipena eta kontrola egiteko, bai eta gastuena ere.*

• *Ikerketa egiten duen irakasleen ekipoetan kontrola eta segurtasun-murriztapenak sendotu bitez.*

• *Ikerketa-proiektuetan zerbitzarien eta ekipoen instalazioa berrikus bedi, halako moduz non ekipo horien kudeaketa ordenatua eta planifikatua optimizatzen den, ahal den neurrian baliabide gutxiago erabiliz.*

• *Ikertzaileek egiten dituzten software eta hardware erosketa-prozesuetan esku har bedi, hardware baliabideen erabilera eta horien kudeaketa optimizatzeko eta zibersegurtasun-alorreko arriskuak saihesteko.*

• *Informatika zerbitzua behar adina langilez horni bedi, ikertzaileek erabiltzen duten softwarearen eta hardwarearen kudeaketa eta kontrola beren gain hartu ahal izateko.*

• *Administratzaile ere badiren erabiltzaileen kopurua ahalik eta gehien murritz bedi, eta izaera hori izateko irizpide argia ezar bedi.*

• *Lan-erabiltzaileei administratzaileen pribilegiorik ez bekie eman, eta berariazko erabiltzaileak sor bitez, ezinbestekoa denean soilik erabiliko direnak.*

• *Softwarea homologatzeko prozedura bat gaitu bedi, sare korporatiborako sarbidea duten ekipoetan instalatua izateko baimena duen softwarearen katalogoa kudeatzeko.*

I. eranskina. Adierazle ez-finantzarioen bilakaera

Hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den izaera ez-finantzarioko adierazle-multzo batek 2021, 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan (2020/21, 2021/22, 2022/2023 eta 2023/24 ikasturteetan) izandako bilakaera:

Informazio ez-finantzarioa	2020-21 ikasturtea	2021-22 ikasturtea	2022-23 ikasturtea	2023-24 ikasturtea
Campusa	2	2	2	2
Enplegatuak				
Langileen guztizko kopurua	1.862	1.937	2.063	2.048
TKAZLak, guztira	505	506	513	508
TKAZL funtzionarioak/TKAZLen guztizkoa ratioa	62	61	67	79
IILak, guztira	1.064	1.147	1.259	1.246
IIL funtzionarioak/IILen guztizkoa ratioa	33	32	32	35
IIL-DOBak, guztira	698	729	771	764
IIL-DOBak/TKAZLak ratioa	1,4	1,4	1,5	1,5
IIL doktoreen kopurua	736	767	821	830
IIL doktoreak/IILen guztizkoa ratioa	69	67	65	67
Langile elkartuak	474	538	616	448
IIL elkartuak/IILen guztizkoa ratioa	45	47	49	36
Ordezko langileak	13	17	12	149
Ikertze-langile enplegatuak	293	284	291	295
Titulazioak eta ikasle-postuak				
Irakatsitako gradu-tituluen kopurua	25	25	25	27
Eskainitako gradu-plazen kopurua	2.020	2.045	2.093	2.221
Unibertsitate-masterren kopurua	27	27	28	33
Titulu berekien kopurua	49	53	58	36
Ikasleak				
Ikasleen guztizko kopurua	8.863	9.218	9.674	10.205
Ikasle kopurua (Gradua)	7.567	7.826	8.140	8.504
Ikasle kopurua (Masterra)	861	887	989	1.120
Ikasle kopurua (Doktoretza)	435	505	545	581
Gradu-ikasleak / IIL-DOBak ratioa	10,84	10,74	10,56	11,13
Gradu-ikasleak / TKAZLak ratioa	14,98	15,47	15,87	16,74
Nazioarteko Mugikortasunetik heldutako ikasleen kopurua	92	111	311	360
Nazioarteko Mugikortasuna dela-eta kanpora bidalitako ikasleen kopurua	411	229	419	523
Graduatutako ikasleen kopurua	1.347	1.310	1.380	1.452
Master-ikasketak amaitu dituzten ikasleen kopurua	464	462	530	590
Ikerketa				
Ikerketa-zentro eta -institutuak	6	6	6	6
Ikerketa-katedrak	13	18	20	23
Ikerketa-taldeak	106	107	110	111
Ikerketa-taldeetako ikertze-langileak	1.200	1.269	1.339	1.236
Irakurritako tesiak	43	61	77	88
Datu-baseetako argitalpen nagusiak	1.787	1.790	1.875	1.757
Sinaturiko ikerketa-kontratuen kopurua (LOUren 83. artikulua).	230	226	230	251
Lehia-izaerako deialdi publikoetan onetsitako inbertsio-proiektuen kopurua	64	88	55	78
Emandako patenteen kopurua	4	2	2	1
Sortutako “spin off”en kopurua	0	4	0	0

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoaren webgunea.

II. eranskina. Abenduaren 31ko langile efektiboen bilakaera

Irakasle eta ikertzaile diren langileak (IIL)	2021	2022	2023	2024
Funtzionarioak	350	365	397	430
Unibertsitateko katedradunak	106	117	125	138
Unibertsitateko titularrak	239	242	266	286
Unibertsitate.eskolako titularrak	4	4	4	4
Beste batzuk	1	2	2	2
Kontratatuak	714	782	862	816
Laguntzaileak	1	5	8	8
Doktore laguntzaileak	66	55	82	107
Kontratatutako doktoreak	51	60	62	40
Behin-behineko kontratupeko doktoreak	107	103	77	57
Irakasle elkartuak	474	538	616	448
Ordezkoak	13	17	12	149
Bisitariak	2	4	5	4
Lan-kontratudun irakasle iraunkorrak	-	-	-	3
PDI, guztira	1.064	1.147	1.259	1.246
Teknikariak, kudeatzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak (TKAZL)				
Funtzionarioak	315	310	346	400
A maila	57	58	63	82
B maila	74	72	90	98
C maila	172	170	179	208
D maila	12	10	14	12
Kontratatuak	190	196	167	108
A maila	32	30	25	15
B maila	39	42	27	14
C maila	92	98	96	60
D maila	12	11	4	4
Besterik (behin-behineko langileak)	15	15	15	15
TKAZL, guztira	505	506	513	508
Ikertze-langile enplegatuak (ILE)				
Lehia bidezko deialdi publikoetako ikertzaileak	132	158	145	160
Unibertsitateko irakasleen prestakuntza (UIP)	5	5	1	6
Ikertzaile diren langileen prestakuntza (ILP)	22	21	15	18
Doktoretza aurreko beste ikertzaile batzuk	82	88	90	112
Ramón y Cajal	3	3	8	8
Juan de la Cierva	2	3	4	3
Doktoretza ondorengo beste ikertzaile batzuk	17	38	27	13
Ez dago jasota	1	-	-	-
Proiektuen, kontratuen eta ikerketa-taldeen kargurako ikerketa	159	124	144	134
Doktoretza aurreko beste ikertzaile batzuk	134	103	122	106
Doktoretza ondorengo beste ikertzaile batzuk	25	21	22	28
Ikerketari laguntzeko teknikariak	2	2	2	1
ILEak, guztira	293	284	291	295
Langileak, guztira	1.862	1.937	2.063	2.048

Iturria: unibertsitate-langileen estatistika, NUPen Gardentasunaren Atarian eskainia Unibertsitate Informazioko Sistema-

III. eranskina. Unibertsitatea-Gizartea Fundazioaren jarduerei buruzko adierazleak

Arloa	Jarduera		Kopurua
Praktikak	Praktika-kopurua		1.134
	Parte-hartzaileen kopurua		2.200
	Lankidetza-hitzarmenak enpresa eta erakundeekin		2.969
	Laneratzeari buruzko gradua, TalentUPNA Graduondoko programakoa		% 66
Prestakuntza	Izen-emateen kopurua	Irakaskuntza berekiak	2.547
		Diruz lagundutako prestakuntza etengabea	14
	Eskola-ordu kopurua	Irakaskuntza berekiak	9.473
		Diruz lagundutako prestakuntza etengabea	75
	Prestakuntza-ekintzen kop.	Irakaskuntza berekiak	122
		Diruz lagundutako prestakuntza etengabea	5
Hizkuntzak	Hizkuntzak	Ikasle-kopurua	797
		Irakastordu-kopurua	4.205
	Azterketa ofizialak	Ikasle-kopurua	2.779
Enplegua	Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntza duen lanbide-orientazioa	Pertsona artatuen kopurua	84
		Egindako ekintzen kopurua	982
	Lan-bitartekaritza	Enplegu kualifikatuko eskaintzen kopurua	420
		Izen emandako pertsonen kopurua	2.038

Iturria: Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren urteko kontuen oroitidazkia.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urteko kontuak, 2024